



JAVNGOIKO-ZALE

EVSKALDVNE | EVSKERAZ

go'tafik eta Sendi Deuna ezegozan an.
Iges egiñ eben Erodes amuratuaren men-
petik.

Orduban Asmodeo asi zan o'foa baten
bere lagunakaz batera esaten eutsala Ero-
des'eri il egizala Belen'go ume guztijak.

Erodes'ek bere jauregira eldu zanez ba-
tera agindu eban ilfeko Juda'ko ume guz-
tijak. ¡Zelako gauza negar'garrija ameari
euren semetxu kutunak besartetik kendu
ta euren eufian samia kentzia! ¡A..... arek
ziran negar' zotiñak....!

Asmodeo'k eta bere lagunak au jasoten
zan artian bare egiten eben Belengo ater-
kijan jayo zan Umetxua be aren artian il-
go zalakuan; baña txafto urten eutsien.

Gaba atan Joseba Deunari aingeru edef
bat agertu jakon eta esan eutsan: Artu
egixuz Josu ta zeure emazte Miren eta
zuaz bert-bertatik Egito'ra, Erodes'en is-
kiluaren aspian jausi baño lenago.

P. M.

ZUR' IBILI....!

Ibiltaririk bizko'fik ba'da
aldia lakorik ezta,
bere bizia ez galtzeko ba,
beti dakust nik igeska.

Unetxo baten ezin gelditu
izatea galdu barik,
toki gustiak arakatuta
iñon ez itxi lo'fatzik.

Aldia baño luzeagorik
ludian ezer eztago
eta batera aldia baño
ezer bai-da laburago?

Aldia zer dan eztakigu ta,
zerbait ba'dala dakusgu,
naiz ta zatirik txikiena be
ezin iñok eskuratu.

Lena, yoan zan bein da betiko,
Gero, beintzat, ezer ezta,
Orain'a, bafiz aitatuteaz
beti-betiko igaro da.

A'rapatzea nai dabenak ba,
«yo ta uts» eingo dau beti,
iges eingutso bizko'fenari,
eta iges eskuarteti.

Alpe'arentzat zama gogo'ra,
langilearen laguna,
gorputz-gogoko arasoetan
Aldia da ondasuna.

Atsekabeen dagoanentzat
geldi xamafa dirudi,
atsegindunak bere ondoren
dakustaz bariz ugari.

Zelan da baña, batzuntzat luze,
besterentzako labur'a
batzuen lagun begikoa ta
askoren etsai gogo'ra?

Ezer eztala dirudi eta
zelan batzuntzat aztuna,
askontzat arin, eta nai bo'gu
guztiantzat ondasuna?

Auxe dalako ezba'rik bage
gure bizitzan Aldia
*Giltza bikoitz bat idikiteko
beragaz nai dan atea,
eske' alderantz gaiztokikoa
eskumarantz donokia...*

GABIREL.

Aldi=*tiempo*. Gaiztoki=*infierno*. Donoki=*cielo*.

LUGINTZAN (1)

Nikola, txiro ta alpeña zan. Bere etxe ingurua, sasi-arantza, ta sastraka baño etxegoan basotxo bat zan.

Egun bero-bero baten, uztaldian zan ondiño-ta, Nikola nagikeriz urétx baten kerizpean etxunda aurkitzen zan.

Une atan bere ondotik igaro zan lugin bat burdi bete gari-asago eroyalá.

Nikola, bekaitzez burdiari begira egotan, eta ostaz-ostaz lugiñaren agurari erantzun eutson.

Lugiñak geldituta Nikola'ri esan eutson:

Zeure luñalde oñi lañatuten itxi beañean,

zeure gorputz alpeñ oñek zapaltzen daben añako luñ atal bati egun bakotxean layatu ba'zendu urte bakotxean nik burdi onetan ñaroadan beste gari añtuko zeunke.

Nikola'k itun edo konseju au aintzat añtu eban, eta sasi arantza ta bedañ txañak kenduta lanean gogoz ekin eutson.

Eta alantxe solo edeñ baten yaube egin zan, eta txuriko bat eralgi barik, bera ta sendia alikatzeko lain añtuten eban.

Ludi gustiak lan egiten dau,
udabañiak lorak emon,
udagoyenak alort ugari
eskintzen dituz beti nañ non.

GABIREL.

(1) Schmid'ena.

ZER EDO ZER

URTE BARI...

Bizitza bari, «esan oi da, baña ori zerbait bide zuzenetatik alhenduta ibili danentzat; bide zuzenez dabilentzat «urte bari adore bari» nekatu barik aufera yafaitzeko dala esango geunke.

Eta «Yaungoiko Zale»ntzat auxe azkenengo au bakañik da, asieran artu eban bide zuzen yaungoikoyari, alendu barik yafaitzen dautso -ta...

Urte bari, ta betiko ikufitza auxe da: «Ekin»... Bizitza ta bizitzako zeregiñak, geure eskuz landu beaf dogun solo baten antzekoak dira. Zelan landu beaf dogun, ezbayan asteak eztauskera kutsiko, landuten alegintzeak baño.

Urte azkenean eskuak utsik aurkitzeko biderik onena, ezbayan geure indařak eralgitea da.

Eztabaidea, astia igaroteko bide eřeza da, baita igari barik eta onura barik galtzeko be...

Gure asmoetan auxe beintzat gogoan euki daigun: Eskuak lanean ditugula *onenari* edo elburuari begiratzea, oso egoki da bidea galdu eztaigun; baña eskuak eunduta geldi-geldi elburu edo azkenera begira egotea zorakeri bat dala ez aitzu...

«EKIN» ba, baña amesetan ez astirik galdu!..

Aldi edo denporea zer ete da?

Austin deunak esaten ebana baño besterik ezin neike erantzun: «Itanduten ezpadaustazue, bai-dakit zer dan; baña itanduten ba'daustazue eztaikit zer erantzun»...

Alan da be, yakitunen esaera batzuk ementxe ipiñiko dodaz.

—Aldi edo denporea diruen antzekoa da: beaf dana eukiteko, ezta galdu beaf.

—Aldia auferatzen eztakientzat, bizitza beti labuř.

—Aldia auferatzen yakin ezkeru gustirako astia eukiten da.

—Ondo igaroten eztakientzat, aldia beti luze.

—Aldiari itandu, onulari zintso ta yakituna da-ta.

—Bakañik astia galtzen eztakienak, arasoz beterik dabilzantentzat, zigor lez izaten dira.

—Aldia onuraz igaroten eztakienak eurena

galdu, ta besteai galdu eragiten dautse.

—Aldiak guzuru ilten dau, eta egiari bizi eragiten dautso.

—Aldia irakasle andia dala esaten da, baña akatz bat dauko: bere ikasleak erailten ditu.

—Espetxetuarentzat aldiak egorik eztauko.

—Aldia guretzat, geu gabiltzan ibaiertzaren antzekoa da, guk uste dogu ertza dabiñela, eta geu gara igaroten gareanak.

Eta pilosopikeri onein astuntasuna arinduteko or doa

Urteyera polif bat.

Konti bakaldun-gayak, Voissenon aba XVIII'n gizaldiko idazle ospetsuari yanari batera deitu eutson, eta Voissenon'i aztu egin yakon eta etzan yoan oturuntzara.

Au zala-ta bakaldun-gaya beragaz asafetuta egoala esan eutsoen, eta Voissenon bere akia-kulak ipinteko lenengo euki eban eretian yoan yakon.

Bakaldun-gayak ikusi ebaneko yaramonik egi-teka lepoa emon eutson.

Orduan Voissenon'ek didař egiñez esan eutson: Nigaz asafe ta gořoto daustezula esan dauste; baña ikusten dodanez, Yauna'ri eskafař, egiak eztau izan beaf.

Eta bakaldun-gayak esan eutson: Eta, zelan dakizu ori?

Ba, zuk ene yaun ořek lepoa emon daustazu-lako, eta zulako gizon adoretsuak etsayari lepoa biurtu barik aurpegi emoten dakielako.

Erantzun au begiko egin yakon eřege-gayari, eta asafea ibitu ta bakeak egin ebezan.

GAMA

EUSKEL - GAYAK

Zenařutza'tzaz, beste aburubak.

Jaungoiko-Zale'ren Lotaziña-15'g. *Koenařutza*'ren alde zupidiak, neure eretxijan, emon neuzan; baña izpide ořiek egi-utsa legez eneuzan emon. Niñuan ba: «Nire eretxija orixe da: *Cen=ken* dala. Iñork ori eztala egiztatzen ba'dau, ni poztuko naz.» Idatzitako ori, ba, nire eretxi bat zan.

Amantzi euzkeltzaliak eretxirik eztau emon;

EGUZKIA TA EURIA (1)

Ekaitzaldi ta eurite baten, mutiko batzuk euren artean mormoxetan ziarduen:

—Ene Yaungoikoa! Zer dala-ta eguzkiak beti argi ez ete dau egiten?

Aldi gitxi bañu bai'zirudian Yaungoikoak euren eskariak entzun zituala; ila askotan ortzean (zeruan) laño txikienik be etzan agertu ba.

Eta leorte ain luzeak, solo, zelai ta baratzetan kalte andiak egiten zituan, baratzetan landara ta lorak igertzen ziran, eta eurak gurariz itxaroten eben liñoa be, ontza batzuk baño etzan azi.

Eta amak esan eutsen:—Ointxe igañiko dozue euria, eguzkia baño beañizan gitxiagokoa eztala. Yaungoikoaren yakiturizko erabagi onetatik auxe ikaskizun au beti atera egizue: Beti alaitasun eta atsegiñez bizitea ezta egoki, baita eroapen ta yakitura lortuteko neke ta atsekabeak igarotea egoki da.

Gogoratu daigun beti Yaun-yakitura,
pozez arturik beti Bere guraria,
egualdi ona lez, ekaitz ta euria,
pozez gauza alaya, naiz atsekabea.
GABIREL.

ITXUKERI BALTZA....!

*Neguko arats otz iluna zan
eta, ixotzaren bilduraz,
ikusi neban ama bat nik bein
landarak zaintzen arduraz.*


*Etxe baruko txokotxu baten
ebilen azkar gordetzen,
bere landara-kutun, mardulak
otzak galdu ezeikezen.*

*Alabak bariz etxeratzeka
yolas nastu galgarian,
an ziran nonbait, gorputz-gogoak
galtzeko zori andian!*

*Eta ama ori nasai egoan,
etzan ez asko estutzen!
Pozik ezpazan ludijak aintzat
artzen euzala gogaltzen....!*

*¡Au bai dala bai, negargaria!
Itxukeririk baltzena....!
Ixotza baño ez da txarago
yolas galgari lizuna....?*

*Lora-landarak arduraz zaindu;
alabak oben zorian!
Amorek bai dau alabarentzat
maitasunik biotzean....?*



ZER EDO ZER

Aifa Santuaren Itza.

XI'garfen Pi kistař gustion Aitak, bere lenengo idazkiorokor edo Enziklika bidez itz egin dauku.

Idazki edef eta mamitsua «Arcano Dei» itzakaz asten dana, katolikotaf gustiak eta eztiranak be, ago batez autortu dabe, aldi oneitarako egoki-egokia dala, ta bertan emoten dauskuzan irakatsi edefai yafaitzea beaf-beafekoa dala, mundu gustiak ain gurari biziz eskuratu gura daun bakea lortuteko.

Alan da be bildur izateko da, munduak, gogo txařeko gexo burubakoen antzera, osakaya ona ta bakařa dala autortu ondoren, gařatza edo dala-ta, aftu barik geratuko ete dan!

Aita Santuak osagiře azkařaren antzera, munduko gatxen sustařa agirian ipinten dau. Gatxa, «naspil, gořoto ta bakerik eza» da, eta sustařa, luřeko ondasunen gurari lařegia, eta ortik sorțzen dala eři gustiak «neu nagosi» esanaz, besteak menperatu nai izatea, onantxe asafe, gořoto ta guda gustiei ate zabala idigiten dautsoelarik.

«Bakotxari berea» Yaungoikoa'ren legea dala aitzuta, gizarteak Yosu-Kisto ta bere irakaskintza zerutařetik iges egin dau, eta *Bake Berbera* danagandik aldendu ezkeru, non aurkitu bakerik?

Auxe dala-ta bere Doipurutzako alegin gustiak, «Pax Christi in regno Christi», «Kisto'ren bakea, Kisto'ren bakalderi edo eřeinuan», zabalțzeko izango dirala diřo. Geuk be, ořetarako gustioi eskatzen daukun laguntza otoi bidez, eta bakotxak bere inguruan Kisto'ren bakea zabaltzen aleginduaz, eskiři dayogun!

Eta idazki ořetako irakaskintza edefak «euskaldunei euskeraz» emonaz be bai.

Kardenal bafiak.

Gabon aurfetik egin zan konsistorio edo itun

batzařean, Aita *Santua'h* zortzi kardenal bafi autu ditu.

Eleizako kardenalak edo yanzkořdunak, gustiz 70 izaten dira. Ointsu autu dituenakaz 66'ra eltzen dira beraz 4 beaf zenbakia osotzeko.

Eurotatik 33 italitafak dira, pantzetařak 7; espařařak 6; doixtař edo alemanak 4; ingalanđař 2; irlandař 1; beljikař 1; portugaldař 1; txekoelabitař 1; osteritař 2; ungaritař 1; ipař-amerikař 2; kanadařař 1; brasildař 1; eta poloniař 2.

Oitura edefa.

Thanksgiving Day edo eskeřak egiteko eguna deritxon yai begikoa, Ipař - Amerika'ko Lateř - Batzak urtero ospatzen dau.

Ořetarako urtean egun bat, Azila'ko azkenengo eguena aukeratzen dabe eři gustien izenean, Yaungoikoa'ri eskeř-ona agertzeko urte bařuan bere ontasunez egin dautsezan eskař gustiekaitik.

Oitura edef onek 1621'tik asita dirau, eta agintari edo gobernuen izenean 1789'tik.

Igaro dan urtean be, Wařen G. Harding Lendakariak, egun ori Yaungoikoa'ri eskintzeko, eři guztiari idazki begiko baten bidez dei egin dautso. Bere itzak emen ipinteko tokirik eztaukogu bařa azkenengoak onexek dira: «Orain ba, neuk Wařen G. Harding Lateři - Batzako Lendakari onek Azila'ren 30'n eguna aukeratzten dot, eskeřak egin, eta eskari ta oneraspen eguntzat, eřiari eskatuaz, egun ořetan etxe ta eleizetan bildu daitezala, Yaungoikoa'ri, urte bařuan egin dauskuzan eskařakaitik biotz-ona agertzeko, eta uřeratzen doyan urtean be olantxe laguntzen yafaitu dayen».

Emen olangorik agintariei, amesetan be, etxake bururatzten!

Itxuraz ain katoliko burua egiten dabentzat etiketa lařegi eretxiko dautse....!

¡Bai! Ostera be gauzak ibiřiko dira dabizen moduan....!

GAMA.

¡NEURIZ..!

*Itxasorantza gelditu barik
doyan éreka zolia
da gure bizi gustia.*

*Bidean non nai ur loi, zikiñak,
kutsu galgañi lizunez,
nastu gurariz aurkituko dauz
gaba baltzez naiz egunez.*

*Bizkoñ ta zoli beti aurera
ba'doya lizun bilduréz,
azpiko lokatz galgañiak be
yañaitukotso yoranez.*

*Geldi-unerik egiten ba'dau
atsedentzeko bidean,
izuñia lez lizunkeria
soñtuko yako soñean.*

*Yoranak kalte, geldiak be bai,
étsayak beti zeletan;
Bizitza onek zelan irauñ lei
garbirik ludi onetan?*

*Bide bat dago, bide bakaña,
ludi ontan ez galtzeko,
beti zuzen ta neuriz ibili
loitik iges egiteko.*

*Gelditu barik aurera beti
neuria zaindu danean,
alan bizitza - garbitasunak
dis-ingo dau azkenean.....*

GABIREL.

BUZTIÑARÍA (1)

Gizon aberats batek bein eztabaida gogoa izan eban nekezariATEGAZ, eta asafe biziz buztinari edo ladrilu bat artu ta yaurti eutson.

Nekezariak, buztinaria artu ta bere etxera eroan eban, bere artean esanaz:

«Bai'leiteke egunen bat eltzea, ari au neuk berari yaurti al izango dautsodana, berak ezer egin al izango daustan bildur barik».

Aberatsa, bere afokeri, alperkeri ta eralgikeriz, lur yota ezer barik gelditu zan.

Egun baten, soñeko arlozez yantzita, nekezariaren etxetxoaren aurretik igaro zan.

Une atan nekezariak igaroten ikusirik, gordeta eukon beñolako buztinaria artu ta yaurtiteko asmoz uferatu yakon, baina bere bapateko asafea itota, berekautan esan eban:

Ointxe gogoratzen naz, txarto eginari, txarto eginaz inoz etxakola erantzun bea. Neure etsaya, aberats eta altsu izan dan artean, beratzaz asertu edo bengatzeko euki dodan zirikaldiri, eutsi egin bea dautsodala uste izan dot, eta kista bati etxagokon gogorkeria izango litzake, oin zoritxarpean dagola, neure aser gogoa asetutea.»

Itzok esanaz, ariya yaurtin eta ordez ogi zati andi bat emon eutson, goseak eskean ipini eban lur-yotako aberatsari.

Txarto egiña onaz ordaindu
da kista onen legea,
etsaya bere maite bea da
maite dogun lez anaya.

M.'tar G.

ZER EDO ZER

Gerkataf saspi yakifunak.

Izen onegaz deitzen yake, Yosu Kisto baño sei gizaldi lenago Grezia'n izan ziran saspi gizon yakitunei. Euren izenak onexek dira: Atenas'ko *Solon*, Mileto'ko *Tules*, Mitien'go *Pittako*, Lindos'ko *Kleobulo*, Priene'ko *Bias*, Sparta'ko *Kilon* eta Korinto'ko *Periandro*. Yakitun oneik euren batzaftxoak egiten ebezan, baktzak bere eretxiak agertu ta erabagiak artzeko

Bein baten Periandro'en etxean bildu ziran eta eztabaidako gaitzat auxe aflu eben:

Yaurkera edo gobernurik onena zein ete da?

Yakitunok Grezia ikertzen etofi zan Anakar-sis'egaz batean erantzunok emon ebezan:

Solon'ek esan eban, gobernurik onena auxe zala: «Bateri egindako iraña gustiei egindakoztat aflu dabena.»

Tales'ek: «Biztanleen artean gustiz aberatsik eta gustiz txiro edo pobrerik eukiko eleukena.»

Bias'ek: «Eregeen ordez legeak aginduko leuken gobernua onena izango litzake.»

Kleobulo'k: «Gizonak zigofari baño besteen gaizki-eretsiari bilduf geyago eukiko leukiona.»

Pitako'k: «Araso ta gorralben andiak, gizon onai bakarik emoten dautsozana.»

Kilon'ek: «Izlariei baño legeari yaramon geyago egingo leuskiona.»

Anakarsis'ek: «Oitura ona goratu ta txarfa gortatzen dabena.»

Eta *Periandro*'k: «Aginpidea gizon gitxi ta onbidetsuen eskuetan ipiñiko leukena.»

Auxe erantzun eben yakitun ospetsuok. Eta oker ibili ziranik eztirudi.

Beraz yaurkera edo gobernurik txarrena zortzi gauzoetatik bat be ondo zaintzen eztabena izango da.

Eta gure aldi onetan onangoxe gobernuak be basteretan ikusi egiten dira.

Eta txarrena da...., Rusia'ra yoan barik!....

Jaungoikoaren izena ele askotan.

Gauza gustien Egilearen izen gurugaria, izke-ta askotan ixki gitxigaz idazten da, ementxe ipinten doguzanetan ikusi geinkenez:

Gerkeraz, *Theos*; lateraz, *Deus*, italeraz, *Dio*; pantzeraz, *Dieu*; katalaneraz, *Deu*; espanyeraz, *Dios*; paraguayeraz, *Duir*; alemaneraz, *Gott*;

eskozeraz, *Goet*; ingalanderaz, *God*; iberneraz, *Ditx*; araberaz, *Alah*; etioperaz, *Anje*; abisineraz, *Agsi*; melinderaz, *Abag*; safazeneraz, *Agdi*; asirieraz, *Abad*; tartarerez, *Anot*; kongeraz, *Adop*; Angoleraz, *Anno*; mairueraz, *Allah*; boemeraz, *Buoh*; sapraneraz, *Buza*; kanaderaz, *B'ri*; ilirieraz, *Boogi*; marsinkeraz, *Buat*; mexikeraz *Bosa*; txileraz, *Ara*; pilipineraz, *Mora*; kiteraz, *Hoba*; kongeraz *Anob*; mongoleraz, *Orsi*; sumatreraz, *Pola*; niponeraz, *Paka*; perueraz, *Zimi*; malbideraz, *Obra*; zirenekeraz, *Fapa*; inderaz, *Tura*; eta Euskeraz, *Urtzi* ala *Yaungoikoa*.

Ibertaflak, olefkietan *Elohim* erabilten ebe, eta *Adonai*, Yaungoikoaren izen berezia, *JAH-VE*'ren ordez, au itzalez esaten azartzen etzirako.

Eta gauza yakingaria da, *JAHVE* onek euskerazko *Yaube* edo *Yabe*'ren antza ta ikuipen bardiña daukola oartzea. Idazti deuna iberkeratik gerkerara biurtu eben LXX biurtzaflak, *Jahwe*, *Kyrios* biurtu eben eta laterazko *Vulgata*'k *Dominus*, eta itzok *Yaube* esan gura dabe.

Bai'dirudi ba, iberkerazko *Jahwe* ta euskerazko *Yabe* edo *Yauna* senitartekoak dirala eta uferkoak dirala alan be. Baña, onetzaz yakitunak itz-egin dayela.

Erantzun zufa ta onu edo konseju on baf.

Europa'tik yoandako bidezti batek, basamortuan aurkitu eban arabetaf bati auxe itandu eutson:

—Yaungoikoa bai'dala, zelan dakizu?—Eta arabetaflak ben-ben erantzun eutson: Egun-sentia ikusteko argirik beaf ete da?....

—Ixileko gauzarik ezeyozu esan itzge (mutu) ala guzuftiari baño. Itzgeari itz-egiten eztaflako, eta guzuftiari inok ziñesten eztautsolako.

GAMA.



Yaungoiko - Maitasuna

Yaungoikoaren Bildotz otzana,
gurutzalduta zakusdazana,
deuntasun oron itufburua,
Zu zelan zagoz zigorpetua?

Ez ziñan ba Zu aldi batean,
etsai gogor ta maltzur artean
ziñala, esan zenduana:
«Zuetatik bat bai da obenik
egiz ezari leikedana?»

Zer dala-ta ba, Yosu otzana,
gurutzalduta zakusdazana,
zer dala zagoz gurutz ofetan
samin-oñazez neke-neketan?

Beti ongile bizi gustian
izan ziñan Zu gaizto artean,
ta afika egin gura eutzuen
egun batean esan zeuntsien:
«On asko egin dautzuet Nijk,
afika orain, ¿zergaitik?»

Zer dala-ta ba Bildotz otzana,
zigorpetuta zakusdazana,
zer dala zagoz zinzilik,
untze gogoréz yosirik?

Eiugea ta Biozperea,
Gizondutako Yainko-Semea,
zer dala zagoz gurutz batean
lapur-eraile gaizto artean?


Pilato'k berak, ba, ez dau esan:
«Obenik ez da gizon onegan,
ez da zigortze ziorik,»
Eta lapurak: «Érudun gara,
Yosu'k ez dau ein gaizkirik?»

Zer dala zagoz Bildotz otzana,
gurutzalduta zakusdazana,
lapur-gaizkilen erdian,
ludi gustian aurrean?

Zergaitik zagoz oñazez,
yosirik untze gogoréz?
Bai dantzut Yauna, zure zauriak
ta gurutzeko neke gustiak,
diñoste itz ederokaz:

«Zer dagien ba, ez dakie-ta,
eruki, Aita, oreitza.»

Oraintxe dazaut, Yosu otzana,
gurutzalduta zakusdazana,
zer dan olan zaukozana:
!«Yaungoiko-Maitasuna!..»



ZER EDO ZER

Yosu-Kisto epaikarien afean.

Yosu-Kisto gure Yauna Erietzako epaya artu aurfetik *sei bidei* eroan eben, auzi-itaunak egitekoko.

Gustiok dakigunez Eguen Guren gabaz, amaiak inguruan Getsemani'ko baratzean, afapau eta Anas'en yauregira eroan eben. Amabiak inguru izango ziran ara eldu ziraneko.

Anas'en afean.

Anas'ek (1) bere irakatsi ta ikasleatzaz itandu eutson; eta Yosu'k erantzun, Berak argi ta garbi itz egin ebala gustien afean, eta bere entzuleai itanduteko.

Erantzun au mofoi batek ezaban ontzat artu ta uferatfrik betondoko bat emon eutson. Orduan Yosu'k amultsuki erantzun eutson: «Txafto itz egin ba'dot, zetan uts egin dodan esan egidazu; eta ondo itz-egin ba'dot zergaitik yoten nozu?». (Von XVII-23). Iñor ez zan azafatu ezer erantzuten eta onetan amaitu zan. Eta Kaiphas' enera eroan eben.

Kaiphas eta Sanedrin'en afean.

Oñafak lenengo aldiz abestu baño len, ordu biak inguruan Sanedrin eritxon batzar epaikariak bildu ziran. Iru taldeak an ziran. Zafena, yaupari nagosiena eta lege-yakitunena. Ordurako ziñaldari edo testiguak artuta eukiezan, eta batak gauza bat eta besteak beste bat, ondo alkaftzen etziran gauzatzaz salatzen eben. Testiguen alkar aitu-eziñ au, zuzentzeko, bi aurkeztu ziran eta «iru egunean yauretzea birindu ta beste irutan be'egingo ebala» esan ebala-ta

(1) Askok aldeztu dabe itaun au Kaiphas'ek egin eutsola, onen yauregian emen diñoguna gertatu zala-ta. Au aldeztu dabe Von deunak (XVIII-23) dakaftzan zertzeladak beste goizparlarienakaz ezezago alkaftzeko. (Mat. XXVI 75; Mark. XIV-51-72; Luk. XXII-54-65.)

salatzen eben. Baña len baño naste geyago softu eben.

Orduan Kaiphas'i otu yakon berealaxe auzia erabagiteko bide bat. «Yaungoiko biziaren ize-nean agintzen dautzut, Zu Kisto Yaungoikoaren Semea zarean ala ez esan dagiskuzula» Yosu'k erantzun eutson; «Zeuk diñozu, Neu naz».

Kaiphas'ek au entzunik, biraoen bat entzuteaz oi eben lez, soñekoak ufatu zituan, eta ao batez esan eben: Birao esau dau. Ziñaldari geyago zertarako? Eriotzaren duin da.

Gero be gai oneri ekin eutsen eta iruterdiak inguruan batzar au amaitu zan. Orduan, gudarrien eskuetan itxi eben, eta zigof, laidoz eta irañez bete eben.

Sanedrin'a bañiro biltzen da.

Egun sentirantz, bostak inguruan dirudienez, epaikariak bañiro bildu ziran, len emondako epaya sendetsiteko. Eta dirudienez emen erabagi eben zer egin, latefi-epaikariari Yosu il eragiteko. Ofetarako ondoen eretxi eutsen Yosu guzufe'zko Mesias'tzat salatzea, alan nas-piltzale ta Yudea'ko efege izateko asmotan ebi-lela efezago ziñestu eragifeko.

Onen ondoren, seirak baño lentxoago, Yosu'ri deituta itandu eutsoen: «Zu Kisto zara? esan eiskuzu».

Yosu'k bayetz erantzun eutsen, baita Yaungoikoaren Seme zala be. Au entzunik naspil andia softu zan, eta danak esaten asi ziran: «Zu Yaungoikoaren Seme?» Eta ao batez eriotzaz epaitu eben. Eta lotuta Pilatos'egana eroan.

Pilatos'en afean.

Efomatar agintariak, geyenez, bederatzia aurfetik ezebezan auzitegiak idigiten, baño gogo-txaftaz baño ezpa-zan be, Pilatos'ek saspirak inguruan Yosu auzitegian artu eban. Gizostea Paska legea ez ausiteafen bafura etzan saftu, eta ikusirik Yosu'k ezeutsola erantzuten, urtenda gizosteari itandu eutson: Gizon au zetzaz salatzen dozue? Eta erantzun eutsoen: «Gaizkiña izan ezpa'litz ez geuntzun eka'fiko» Pilatos'ek euren legez zigofzteko agindu eutsoen, baño arek laster erantzun ofetarako lege-eskubiderik ez eukela. Eta Pilatos Yosu'ren aurka ipinteko, guzufe'z salatzen asi ziran gizostea naspiltzen, eta Kaiser'ari zergarik emotea debakatzen ibili zala-ta.

Pilatos'ek zer egin etzekian eta bañiro itandu eutson. Eta bere erantzunak uleftzen ezebazala-

kotzat eginda, gizosteari efügea zala adirazi eutson, parixetafen salalkuntzak gorab-era azkatzeko egoala, yakin eban Galilea'taşa zala eta Galilea'ko Yauflari Erodes'egana bialtzea utu yakon egun aretan Yerosolym'an egoalako.

Erodes'en aufflean.

Erodes'ek ikusteko gogoa ba'eukon, eta itaun asko egin eutsozan afen Yosuk gaiztoaren aufflean itzik ezeban atara, eta orduan, ifiz efüge yantzi zuriz apaindu, zoro bat bai'litzan, ta bañiro Pilatos'egana bialdu eban.

Bañiro Pilatos'en aufflean.

Amaşak ingurutik amaikaterdiak ingururarte bañiro Pilatos'en aufflea eroan eban. Eta lenen salateriei esan eutsen, berak eta Erodes'ek be, ezebela ziorik aurkitzen eta Yosuk azkatzzen yoyala, baña zana zala, lenen zigofutu egingo eballa. Ořetarako Başabas ala Yosuk azke itxiko eban itandurik, gaiztoak Başabas azkatzeko eta Yosuk erailteko eskatu eutsoen. Orduan eřukitu zedin eřia, zigofutze agindu eban, eta burua arantzaz inguraturik eřuki emoteko eran gizosteari eřakutsi eutson. Alan be biotz bako areik bañiro be gurutzan yosteko eskatu eutsoen. Eta galde erantzun batzuk egin ondoren, bañiro be Yosuk eřubako zala adirazota, Pilatos'ek argalkeriz, emon dan eřairik baltzena emon eban:

Yosuk maitea, gurutza baten ilteko!....

Eta Yosuk-Kisto'ren etsai amofatuak bearealaxe bete eban.

ibili ğeralda, nerau asita, enpairubak be, dagerke. Joseba'ri eiñotsozan itaun labuřak berakingo itzapenan:

—Joseba, *Ziořtzabeitia* řzein tokitan dago *Ziořtzan*?

—Txadonan beko aldiari, bide-ziař eęalian dago *Ziořtzabeitia*ik.

—řBa'dago *zingiratzarik* bitartian?—Solo bařen zaka unetan *zingiratzak* be bai'dagoz; an nun nai urteten da ura.

—řGoiko leunian ba'dago *Ziořtzan* oxiniik eta itufiriik?

—Uraskia ta itufija (alboratxuago) antxe bertan dagoz.

—řUřitiz zugatzik bai ete-dago?—Eztot uste.

—Ixena *Zieřa* daben tokirik?—Andik ordu-erdioko bidian, *Zieřegi* auzotija, bai.

—*Ziořtza* bertan, basorik edo solorik *Zieřa* deritxonik řeztau?—Ez; eztau. Itzapen au ta Amantzi'k aratu dauazan idatzi-zařak diñoena auřian dotazala, atxur eta beste tresnak lepuan ařtuta, beste solora aldatu bieřa baño eztau. Ta beste solo ori, *zingira*, *antzira* edo *zantzira* ta *lintzura* edo *lintzira* dira nire ustez. *Zenauritza* edo *Zenaurutza* eta eřijaen *Ziořtza* esalei dagerkuezala *Zingirako zin* eta *Uřutien uřu* itzak, ikuřpen aunixaz: *Zenaurutza* (*Ziořtza*)=*los manantiales de aguazal*.

—Oĩnarteko nire alegiřnak ementxe amaĩtu dira, beste norbaitzuen obiak itxaronik.

* * *

ARAUTZAK (1)

Lugin bat bere seme ikasle zanagaz mayan yañi zan. Iru arautza yateko ekañi eutsezala ikusirik aidak, esan eban:

—Au gitxi da; lau ekañi beañ ebezan, bakotxak bi yan al izateko be.

Orduan bere semeak esan eutson:

—Neuk agertuko dautzut azpil oñetan dagozan arautzak bost dirala.

—Pozik entzungo daustat ba, aidak erantzun eutson. Semeak ben-ben yañi ta yakitun axeaz asi zan:

—Iru arautza dagozan tokian bi be bai dagoz. ¿Ezteritxo?

—Edeñto,—erantzun eutson aidak—ori argi yagok.

—Alan ba, arautza bi ta iru arautza dagoz azpil edo platerean.

—Bai; ondo yagok eta auñera, esan eban aidak.

—Orain ba, begitu ondo—yañaitu eban semeak—Azpil oñetan arautza bi ta iru egon ezkerro, eta iru ta bi bost izan, argi dago azpil oñetako arautzak bost dirala.

—Edeñto!—esan eban aidak eskua platerera luzetuaz—Nik ba, yango yoadaz iru arautza ta beste biak euretzat.

Ona da batzuetan
oldozpen zolia,
baña yatorduetan
arautza ohea.

AGO - BELAĀRIAK (1)

I

Andiki sendiko gaste aġo ta antuste batek bera baġo zaġago ziran batzukaz etenbako baġiketa baten ziarduan.

Aretatik zaġenak au oaġturik esan eutson:

—Ene seme; Egileak belaaġi bi, baġa ago bat bakaġa emon eutzun; eta onek adirazoten dau, itz gitxiago egin ta entzun geyago egin beaġ dozula.

Itz asko egin eta
entzuteztabena,
gogaikaġia bai'da,
ez baġa ikastuna.

II

Beste gaste aberats andiki batek otsein bat bialdu eban etxetik, arazo baten zintzoa ez zala izan uste ebalako, eta bere burua zuritzeko astirik be ezeutson emon. Baġa gauzak ondo aztertuta agertu zan otseiġa eġubako izan zala. Orduan bere aitak esan eutson gasteari:

—Yaungoikoak belaaġi bi emon dautzuz; batagaz salatariari entzun beaġ dautsozu; baġa besteagaz salatua izan danari be bai.

Zuġtasunak eskatzen dau
bieri entzutea,
emon eztaizun iġnoz be
epai baġegaġia.

M.taf G.

ZER EDO ZER

Olefkariak ugari.

Yapondafak oso olefkariak dira emen ipiñiko doguzan izpařetan ikusi geinkenez.

Edozeñek idazten yakin ez ařen olefki edo bertsoak eřeztasun andiaz ataraten ei ditu. Eta egia dirudi. Oraintsu olefki sariketa bat egin zan eta sariketara ¡50.000! olefkarik baño geyagok euren lanak bialdu ebezan.

Eřirik txikienean be, *Unza* deritxoen olefkari bazkunak ei dagoz. Ilean Li edo iru bideř batzařak egiten dituez, eta bakoitzak batez beste ogei bat olefki aurfkezten ei ditu euretzaz eztabaidak eukiten dabezalarik.

Egiz esan geinke ba, eři olefkaria dala.

Yapondafen oifura bat.

Yapondafak umeen bat yayoten yakenean, auzokideai adirazten emoteko ařain bat pendiz edo balkoitik eskegita ipinten dabe. Andikiak edo aberatzak ba'dira, lebatz edo antzeko ařain anditxoren bat, eta txiroak izan ezkerro, makařao eta sařitan sardiñatxo bat be bai.

Izpařok oraintsu Yapon'dik idatzitako idazkai baten irakuři ditugu.

Diru papelik zařena

Europar atara daben txindi-papelik zařena Barzelonan 1401'an agertu zan. Baña txinařak onetan europarai aurea ařtu eutsen. Biena'ko Bildegian ei dago Txina'ko diru-papel bat Taining bakalaldikoa, XIV'gn. gizaldiaren azken al-dian egiña da.

Alde batean auxe dauko idatzita: «Taining bakalaldiko txartela. Zerupeko alde gustietan balio dau» eta beste aldean idazkun gogof auxe: Txindi-papel guzufeřkorik egiten daben edozeñeri burua ebagiko yako».

Txantxetan ařtzeko gauzea ez da gero!....

Ipař-Amerika'ko Katolikoak.

1820'an ipař-Amerika'ko Lateř Batzan 15.000 katoliko bakařik egozan.

1822'an, 400.000.

Orain bařiz, 25.000.000'ra eltzen dira.

17.000 eleiza ei daukez.

15 Ikastetxe Nagosi 19.802 ikaslegaz.

51 abade-ikastetxe, 6.667 ikaslegaz.

113 lekaide-ikastola, 4.531 ikaslegaz.

115 kolejio, 13.990 ikaslegaz.

1.522 ikastola nagosi 129.843 ikaslegaz,

5.690 eleiz-ikastola, 1.698.032 ikaslegaz.

Osterantzeko auferapenetan nagosi dira baña, katoliko arazoak betetan azkenengo mutiak ez dira.

Yakitun izateko bide ezeza

Duhamel inmatematiko ospetsua ikertzen emakume andiki bat eldu zan. Yakitun-ospe andia eukonez, bata itandu, bestea itandu, emakumeak ekin eutson. Itaunak gauza zaletzaz ziranez, Duhamel yakitunaren erantzuna, geyenez, «*ez dakit*» izaten zan.

Alango baten anderea ainbeste «*ori ez dakit*» entzutez aspertu zan, eta bizi samar esan eutson: Nire itaunari erantzuten ezpa dakizu, zertarako balio dautzu yakitun izateak?

Eta Duhamel'ek erantzun eutson: «Yakitun izateak, andrea, «*ez dakit*» esaten yakiteko balio dau».

Erantzun edera! yakitun eta ez-yakiñok gogoa euki bea gendukena.

Yakitun izateko bide ezeza, irakurburutzat ipiñi dogu baña, leloentzat orixe be ez da ain ezeza, leloak dana dakiela uste izaten dabe ta «*ez dakit*» esatea latz egiten yakelako.

AMA'REN IĀA

*Ortze goi-urdiñan
argia dis-diska,
beren izpiakaz,
poza zabaltzen,
aran ibařetan
lili eta lorak
luřun gozoagaz
dana gozatzen,
sasi zugatzetan
txoritxo politen
abesti samurak
dodaz entzuten.*

*Izadi gustia
dakust alaiturik,
pozaren-pozagaz*

*esti - estitzen.
Baita surumuřu
gozo amultsu bat,
eten barik nago
beti entzuten,
lo zořoz daukadan
biotz aldakoř au
esnatuta pozez
dauna betetzen:
«Ama'ren iĀa da,
OřĀa pozkaři
esti, zoragaři:
¡Aguřtu Miren!
¡Aguřtuizu Ama!
Aguřtu biotzez,
ludi Bakalduna
¡Aguřtu lenen!»*

GABIREL.

Yorka mutikotxoak ondiño ez zekien ari bizia zer zan. Zelai baten zegoala egun baten garasika asi zan:

—¡A! ¡A!

Eta berealaxe aúfeko mendi batek bardin erantzuten eutsola oartu eban.

Norbait bertan eskutauta egoalakoan, ariturik itandu eban:

—¿Nor az i?

Eta lengo abotsak bereala erantzun eutson:

—Nor az i?

Yorka'k orduan erantzun eutson:

—I lelo bat az!

Eta itz bardiñak bañio entzun zituan.

Orduan Yorka asafeturik aora yatofkozan irain gustiak yaurtiten asi zan, berak eskutauta egoala uste ebanen aurka. Bañā anots edo ari biziak gustiak bardin biurtu eutsozan.

Azkenez oyanean bafura sartzea erabagi eban, an eskutauta egoala uste eban idoro ta zigoftzeko, bañā iñor ez eban aurkitu.

Bizkof etxera biurtu zan, eta amari yotakoa edestu eutson, mutil zantzailen batek eskutau eta iraindu ebalā esanaz.

Bere amak erantzun eutson:

—Okef ago mutil; ik euk esandako itzen otsa baño ez dok entzun. Ik oyamera begira itz samur bat esan ba'endun, itz samurak erantzungo euskan.

Bizitzan be bardin gertatzen dok. Besteak, geugaz dauken artu-emonetan, geurakaz garean lakoak safitan izaten dok. Geu begirakun bako, gogof ta lotsabakoak geure lagun urkoagaz ba'gozak, eurakandik erantzun obarik etxoguk itxaron beaf.

Geuk esaten doguna
oyanen erantzuna.

M. taf G.

(1) Schmid.

Oyan=*bosque*. Anots edo ari bizia=*el eco*.
Zantzail=*pilo*.

LORE - ILERAKO

(«VENID Y VAMOS TODOS» EUSKERALDUTA)

Etoñi, goazen danok

Lorakaz alkañ-leyan

Lorakaz Maria'na,

Geure Ama da Bera.

Bañio emen gaukazuz,

Neskuts garbi-garbia,

Zeure aúfēz auzpezturik,

Go'ko ilargi zuria.

Luñ onetako lorak

Eskintzen gatoñkizuz;

Zelako mañtasunaz

Zeuk, Ama, dakusazu.

E.



ZER EDO ZER

Sentsuna nagosi.

Gustitarik irakurri bear dala; irakurteak kalterik ez dabela egiten; gizona ofetan azke dala; ta... beronein antzeko tentelkeri asko safi baño safiagotan nok ez difuz entzuñ?

Eta abadeak-eta, bear dan beste egin ez afen be, irakurte txafen kaltez ekiten dautsogunean, *bibotea* daukela ta beste barik sasi-yakitunek esaten dabe, gauza andi bat esaten dabelakoan: Ofek abade ta praleen kontuak dozak....!

Baña zorionez abade ez diranak be, eta intzentso usañak bakafik mareatzen dituanak be, irakurte txafetatik kalte asko etofri leitekela autoftzen asi dira.

Begira ezpabere Parantzi'ko agintariak, diranak izanda, zer egin daben.

Victor Margaritte deritxon idazleak, beste askoren artean, irakurkizun edo nobela bat argitaldu dau. Eta pantzetaf agintariak oitura onen kaltezkoa dala ikusirik, bai'dakizue zer egin daben? Ba saltzea galerazo; eta bardin egin dabe Sui-za ta Italia'n. Eta eleizeak azpian artuko ete dituan bilduraz, ufin zamar ibiltzen diralako, ez dogu uste lekaide edo abadeen onuz erabagi ori artu dabenik. ¡Bai, onak dozak eurok abadeakana onu eske yoateko.

Beraz sentzunak erakutsi dautselako irakurgai ofek gogo-biotzetan kalte andiak egin leikezala, debekar biar izan dabe.

Ez da ba, irakurgai txafen aurka egitea «abade ta praleen gauzea» bakafik! Sentsuna be geugaz dabil, askok uste izan ez afen! Eta batzuen burutik iges-alditxoak egin afen nozik bein osteratxo bat egiten bai'daki, erabagi ofetan ikusi geinkenez.

Beste irakurgai askogaz bardin egingo ba'lebe, ja zelango bakea!

Baña, euren artean esango dabena: Besteakaz bardin egiten ba'yoguk, gizonaren azkatasunatzaz azaltzen yoaguna, non geratzen dok....?

Askatasuna! askatasuna! ire izenean zenbat kirtenkeri egiten ete dozak....!

Basatiak... basatikeriak!

Basatiak basatikeriak egiteak ez gaitu aritzen, baño mundua bariztatzeko asmoz dabiltzan Efusia'ko basati zibilizauak!! egin dabena, neuritik gañetikoa da.

Zugatza igalitik ezagutzen da.

Gustiok dakigu, eta toki onetan be baten baño safiago aitatu dogu, Efusia'ko gosete ikaragafiak arintzeko zelango bitz zabalaz Aita Santua alegindu dan.

Ointxe be, ofetarako izentauta daukon batzorde baten bitartez, egunero 120.000 lagun gosez ilgo litzakezanei yanari ta yantziak emoten dautsez. Arazo ofetarako aldi oso laburlean 20.000.000 lira erusitar gaxoai bialdu dautsez, eta ori beař izana daukien artean zabaltzeko, katoliko diran ala ez begiratu barik.

Ondo egiñen pagua.....

Ainbeste on egin dabeari emon dautsen erantzunak basatikeriak egiten txapeldun sovietak dirala agertzen dausku.

Oraintsu Aita Santuaren aginduak bete dituezala ta beste barik, Zieplak gongotzaña eta Budkievicz gotzaña eriotzaz epaitu dituez. Eta epai gogor au aufera eroateko gertu egozala yakin dabenean, katoliko ta eri zibilizauetako agintari gustiak, Aita Santu edo Doipurua aurretik dabela, epai bidebako ori atzeratuteko eskatu dautsie. Eskari zuzena ziñez!

Baña toki onera zuzentasun eske! Ara emen *modako* basatiok

Emon dautsen erantzuna.

Larunbat deuneko goizeko lauretan, Budkievicz gotzaña buruan tiro bat emonda erail eben. Eta ori naikoa ezpaltitz lez, boltxebitaren izpařingiak, batez be *Izweestia* ta *Pravda*'k izpař samiñ au ifiz zabaldu dabe. ¡Ogeigařen gizaldian bizi ete gara?

Txařto egiñari onaz erantzun.

Astakeri onegaitik bere samiña azaldu ondoren Aita Santuak, agindu dau, orain arte lez edo geyago, erusitar gosetiai la gunduko dautsela, ze alderditakoak diran begiratu barik. ¡Ori da erantzuna....! Zugatza igalitik ezagutzen ba'da, or bakoitzaaren igaliak.....

Zertzelada batzuk.

Auzia goizeko amaiketari asi ařen, antxe euki eben Zieplak gongotzain zařa gabeko amaiketarte, eta ordu onetan galdeak egiten asi yakozan.

Itaunak egiten eutsezan bitartean aulduta, sutunik ezin egonda, ategai bateri oratuta egon beař izan eban, lufera ez yausteko.

Alan-da be, erantzunetan adore andia agertu eban. Krylenko epaikariak aurretik ondo oldoztutako itaunen artean auxe egin eutson:

—Zuk nor daukozu zeure nagositzat?

—Aita Santua.

—Eřoma'ra idazten dozunean, ingalandař ordelarien bidez egiten dozu?

—Ez. Bein Krassine'n baipenaz, idazki bat Eřoma'ra bialdu nebañ, eskuz-esku. Baña oituraz bidaiz bialtzen ditut.

—Eta zuk uste dozu Petrogrado'tik bidaiz bialtzen dozuzan idazkiak Eřoma'ra eltzen dirala?

Ifiz egindako itaun oneri baře algaraz an ziran basatiak erantzun eutsen.

Gotzain biokaz batera yaupari batzuk epaitu ebezan, eta Federoff eritxon bateri auxe itandu eutsoen:

Krylenko'k: —Nor daukozu zure nagositzat?

—Yaungoiko ta gizonen legeak alkařen aurka dagozanean neure kontzientzia.

Krylenko'k asafez: —Niri zure kontzientziak ez daust ardurarik emoten.

—Ba, niri bai, ofexek ardura emoten daust;—erantzun eutson Federoff'ek.

¡Ederto erantzuna!

GAMA.

GARIKOITZ'TAR MIKEL ZORUNDUNA

(1797-1863)

Deunak bai dira oin be!..

Ezyakiñez ala oartzerik ezaz, zabalzen diran esakeran artean auxe sañitan entzuten dogu: «Deun edo santuak lenago izaten ziran, oin olangorik ez da». Eta baten baño sariagotan, erantzun au emon dogu, utsik egiteko bildur barik: Deunik ez dala gure aldiñ? Bai orixel eta iñozko geyago gizaldi oneitan».

Deunakaz loratxo apal eta usain gozodunakaz gertatzen dana yazoten da. Lora apalak bere inguruan usain gozoa zabaltzen dau. Bideztiak usain gozoa somatzen dau, baño begirakada bat egin, eta, gauza ikusgarñ ta galentzen danik ikusten ezpa-dau, geyago aztertu barik, oldozkun ludikoyak buruan dituala, yaramon barik aurera yoaten da. Bidezti ori, azal eder zale da, zarata zale, gauza disdiratsuen zale da.

Zelan ba bururatu be bide ertzean ikusi daben loratxo apalak ain usain gozorik emon leikela? ¡Ez ba! Gogo zarata zaleak, ixiltasunaren onurak ezin ulertu! Gogo afoak apaltasunaren edertasunak ezin ezagutu!.. Eta alan da be, gauzea txikia izan añen, geyenez aldintsuena izaten da; lora apala usaintsuena, ixilean burua eskutatzen dabenak ospe andidunak baño on geyago egiten dau.

Baña bidezti benerako ederitasun bila dabilena ba-da, bedar artean burua ostendu eziñik dabilen loratxo ez dau ezeztiten, bere eskuetan artu ta azterturik, ikusiko dau bera ainbestean atsegindu ta birloratzen daben usain gozatsua, loratxo apalarena dala. Eta berekautan esango dau, gustiok sañitan gogoratu bear geunken egi aundi au: «Zarata askok on gitxi ta gauza onak zarata gitxi» egiten dabela.

Eta deunak olantxe izaten dira. Gure inguruan ibili añen, gizaldi zarata zaleetan batez be aintzat ez dira artzen. Ez baño ez diralako, olango gauzak somatzeko bear dan sentzuna galduta dabilenako baño.

Deunak ba, bai dira oin be, eta beste edozein gizalditan beste edo geyago. Eta euskotañen artean be bail!

Eta bat Eleiza Ama'k gaur bertan zoriontsuen izendegian ipiñi daben Garikoitz'tar Mikel gure abendakidea.

Beratzaz zerbait esan daigun ba.

Garikoitz'tar Mikel agur'gariaren bizitz-izpaitxoak.

Mikel Garikoitz, Benapañako, *Done-Izti-Ibañen, Garaikoetxe* baseñan, 1797'

ko Yořala'ren 15'an yayo zan. Bere gur-
asoak lugin apalak izan ziran.

Txikitatik izakera bizi, adimen zoli ta
zura, eta gogo kementsua agertu eban.
Gogo arazoetan, bere ama onaren iraka-
tsi kistařak zirala bide, beti zintzo ta ar-
duratsua izan zan. Alditxo bat ikastolara
ibili ta amasei urterarte artzaintzan ibi-
li zan.

Adin onetan yaupari edo abade izate-
ko deya bere biotzean somau eban. Bere
asmo edera aitari agertu eutson, baña
bere biotza zerbait saminduko eban er-
antzuna arřu eban: Burubide a, alde ba-



MIKEL GARIKOITS ZORUNDUNA

tera itxi beařko ebala, eta lanari gogor
ekin, abade egiteko beař zan ondasunik
ez eukela-ta. Mikel'ek burua makurřtu
eban, biotza samiñez beterik, baña bere
asmoa ez eban itxi, gogoan arturik bere
amonak ziñesmen biziz esaten eutso-
zan itz oneik: «Yaungoikoak lagunduko
dasku; guk geure aldetik dagona egin
daigun, eta enparaua Yaungoiko onak
egingo dau».

Eta alantxe gertatu zan. Eragozpen
gustiak azpiraturik gotzañak bere babes-

pean arřu ebalako, Aira, Akize ta Laře-
soro'ko ikastetxeetan ikasketak onura
andiz egin ondoren 1823'ko Gabonetan
lenengo yaupa emon eban.

Urřengo urtean Kanbo'ko txaunburu
autu eban. Gogo ta gorputz bere alegin
gustiak eliztařen biotzetan, yanseniotařen
gogorikerian aurka, yaunařtzeko zaleta-
suna zabaltzen erabili zituan. Baña ba-
tez be umeari kistař ikastia irakasten,
eten barik, ekin eutson, lanik onuratsue-
na euren alde egiten dana izaten dala
bere adimen zoliaz igari ebalako. Ume-
ak ziran bere kutunak, eta urřengo, gexo
ta beařtsuak.

Urte bi bařu Betařam'eko ikastetxera
irakasle bialdu eban, eta laster bertoko
buru izatera eldu zan. Toki onetan bere
adimen zura, bere biotz sutsua, yaupal-
gei on eta yakintsuak atarateko zuzendu
zituan. Eta bai lortu be, bertatik urten
eban yaupari gaste, Yaungoiko zale,
azkařak laster erakutsi ebenez. Otoitř
egin, ikasi, irakatsi ta yaupari arazoe-
tan eten barik lan egitea izan zan bere
arautegia. Lau bost ordu irakasten igar-
o, eta enparaua itzaldi mamitsuak egin,
aitorkuntzak entzun, eta gustiai on eg-
iten igarorik, gabaz idaztiei ekiten eu-
tsen, eta sařitan goizalderarte.

Gero, 1834'en urtean, Gotzañak Ba-
yona'ko ikasteixe nagosira yaupari ikas-
le gustiak eroateko asmoa arřu eban
eta, Betařam'en bera bakařik, Gimon
aita lagun ebala, gelditu zan. Bakař al-
di au bere buruan aspaldi eukon asmo
eder bat aurera eroateko egokia zala-ta,
Yosu'ren BIOTZAREN YAUPARI BATZA sor-
tu eban. Asieran sei yaupari bildu zir-
an, gasteria Kisto'ren bidean ipiñi, eta
Yaungoiko maitasuna, belguntza bidez
batez be, zabaltzeko.

Bazkun onek, gauza on gustiak lez

eragozpen andiak aurkitu zituan, batez be *Arbau* Gotzaniak, aztertzearen-edo, berak agertu eutsozan asmoak ontzat aritu ezin zitalako. Eta gañera bere menpetasuna aztertzeko, beriala Bayona'ko ikastetxera etorri bear' zala agindu eutson.

Garikoitz yauna, ezertako akiakularik ipiñi barik, nagosiaren esana betetako, bereala Bayona'ko ikastetxera zuzendu zan. Gotzaniak, bere apaltasun eta menpetasunaz ariturik, esan eutson: «Naikoda, aiskide, orain Betañam'era biurtu zaitte».

Eta alantxe egin eban. An bazkunaren lenengo oñariak ipiñiaz 1837'an gasteentzat ikastola bat idigi eban, eta laster bildu zituan irureun ikasle baño geyago. Gero gotzain bariak, *La Croix* yaunak, bere bazkuna onetsi ebanean, bere egoak gogotsu zabaldu zituan, amar' urte baru lateraz irakasten be asirik. Eta ikastola onetatik amaika ospe andidun yaupari zintzo ta azkarak urten eben! 1851'an, Buenos Aires'ko gongotzaniaren eskariz, aberastasun bila, ziñismen eta euskal oitura onak galtzeko ariskua. Ara yoaten ziran euskaldun ugariet' gogo arazoetan laguntzeko, bere bost lagun bialdu zituan, bera gotzaniaren agindua egitearen tamalez geratzen zalarik.

Bazkun bariak Pau eta Monkade'n ikastola bariak zabaldu zituan, eta Garikoitz'ar' Mikel Oloron'eko abadegei ikastetxeko nagosi aukeratu eben. Toki onetan bere bizitzako azken urteak igaro zituan, osasunez argal xamar', baña, berak oi eban euskotar' zintzotasun gar' eta zuritasunaz, leporatu eutsoezan arazo astunak bete zituan, lan eta neke artean otoi eta idaztiari loturik, 1863'ko Oñila'ren 14'an, bere onbideen saria artzeko,

Yaunak, bere ondora deitu eutson arteraño.

Garikoitz agur'gariaren onoinenak.

Bere onoinen edo birtute arigariak aitatu baño ezin geinkez, Yauna lagun, idazlitxo baten luzetxoago azaltzeko asmoa darabilgu-ta.

Eten bako langilea, gau eta egun lanean iñarduan, bear' eban atsedean eta yanaririk osta-osta artzen ebala.

Eragospen gustiak garaitzen dituan, ziñismen bizi-bizia, Yaungoikoagan itxaro osoa eta yaumaitasun garitsuak, bere izakera euskotar' utsa osotu eta orniduten eben. Bere gogoa itz oneitan ikusi geinke: «Gure uste osoa Yaungoikoaren arduran ipiñi bear' dogu; orain arte ez dausku utsik egin, eta iñoz be ez dausku egingo, zintzoak izaten ba'gaya-koz».

Baña batez be, apaltasunez gitxi langoa izan zan, orobat nagosiekakanako menpetasunean.

Azkenengo tokiak aukeratzen beti lenena, ixeka, ikusi-ezin eta irañak, atsegiñez artzen zituan, saritan bere biotzeko atsegiña agertzen ebalarik.

«Yaungoikoa gustia, ni ezer ez»; «Yaungoikoa bere tokian; ni neurean»; «Yaungoikoak zetan diñarduan bai'daki»; eta saritan erabilten zituan, onein antzeko itzak. Arazo, yantzi, eta yanarietan beti besteren ondakiñak, gauzarik latzenak artzeko beti gertu eukon biotza. Auxe dala-ta, «apalak goraltzen» dituan Yaunak ainbeste goratu dau.

Bere gogo kementsu euskotara eragospenetan agertzen eban; eragospenak koldaritu bear'ean adoretu egiten eben, eta bere gogo sendoa esku artean artzen


zitian zeregin gustietan garailari urteten zan. Auxe dala-ta Yauna'k bere alegi-ñak onetsi ditu eta erein eban azi edera, alort ugarriak emon, bai Europa'n eta baita Amerika ta Asia'n be.

«YOSU - BIOTZ DEUNAREN YAUPARI BAZKUNA» IX Pio Doipuruak [1877'an] onetsi eban; betiko ta toki gustietarako, X III Lon'ek 1901'an; eta gau' Oñila'ren 10'n 1923'ko Yosuren igokunde egunez, gure Doipuru maite XI Pio'k; zoriontsuen ler-oan ipiñi dau. Ara or bere garaitza!

¡Aintza ba Garikoitz'tar Mikel agur-ga'ñari!

* * *

Txikitako mutil bizko' tolesgabea; mo'oi zintzo ta esanekoa; gastetako ikasle azkar eta kementsua; yaupari gogozale ta gartsua; irakasle yakitun eta zu'ra; Yosukisto'ren antzera gustiei on



CANBO'KO ELEIZA

egiten bizitza igaro eban, abade batzaren irasle onbidetsua, gaurtik Eleiz Amaren erabagi utsezko'ez, kista' gustion eta batez be euskaldunon eredu ta aintza da.

¡Poztu gaitazan ba, goraldur daigun; zerutar lora eder onen usain edera zabaldu daigun, eta batez be *Yaungoiko-Zale'* ko bazkide maiteok ya'ñaitu dayogun....!

GABIREL.

ZER EDO ZER

ELEIZ AMA ETA DEUNAK

DEUNAK, Ama Eleiza deunaren semerik kutunenak dira. Edo obeto esateko, Eleiza'ko baratzean soñtzen diran lora guri, samur, edef eta usaintsuenak.

Ontasunean berariz galenduten diranean, kistafoi be eredu eta ya'raibidetzat begien aurean ipinten dauskuz, baña iradu barik, gauzak *ondo* azterfuta. Batzuetan, etsayak inguru gustietatik guda gogoi egiten dautsienian, bai daki deun iragartea geroagorako itxiten, gizaldiak bere eskuetan dituz-eta, baña, bere seme kutunokaz naiz ta apalenak izan, iñoiz be ez da aztuten.

Hello idazle yakintsuak diñonez, Eleizaren zeinkietatik bat, atsekabeak naspildu ezin leiken baretasuna da. Iñoz be ez da artegatzen, iñoiz be barengo bakea ez dau galtzen. Yaunaren abintzaz daki goiz edo belu garailari izango dala, eta, auxe dala-ta, itxaroten daki. Beste batzuetan, ludia naspilik andienean aurkitzen danean, gogorik onenak, apalenak gizadiari begien aurean ipiñita di-

ñotso: «Gentza, maitasuna, ta zorionaren bila ba'zabiz, onexek irakatsiko dautsu bidea; beroni ya'raitu.....»

Diñogun gusti au, Eleizak egun oneitan egiztu dau, Eroberto Belarmino, Garikoitz'tar Mikel, eta Ume Yosuren Terese, zoriontsuen izendegian ipiñita.

Eroberto Belarmino

Yosulaun eta kardenal ospetsua, 1621'en urtean il zan.

Bere onbideak zirala bide, zoriontsuen artean ipinteko auzia, 1628'an asi zan. Etsai asko euki zituan; baña eragospen gustiak azpiratuta, bere deuntasunak dis-dis egiten eban, eta 1753'en deuntasun aztertzea amaituteko egoan. Baña Aita Santuak aldi aretako gora-berakaitik, erabagia emotea atzeratzea egoki izango zala uste izan eban, eta alantxe egin be.

Baña Eleiza ez da askoia, eta egun oneitan, etsayak galerazteko alegin andiak egin aren be, Aita Santuak, zoriontsuen artean zenbatuko dau. Auzia asi zanetik bereun da larogetamabost urte igaro dira. Egiz ezan geinke ba,

Eleiza Ama'k erabagiak iraduz eztituela aritzen.

Mikel Garikoitz

ostera azkenengo «Yaungoiko - Zale»n azaldu gendun lez, ilda irurogeigarren urtean, zoriontsuen leñoan ipiñi dau. Bizkor ibili da Ama Eleiza donea, geure anai au deunen artean ipinteko.

Baña gustiok garaitu dituana, Ume Yosu'ren Terese zoriontsua izan da. Ogetalau urtedun, 1897'n il zan, eta, ogetasei urte bañu altaran ikusten dogu. Yauna'ren erabagi onek egi-egiz zerbait adirazten emon gura dauzku XI'en Pio Aita Santu agur'garriak itzaldi eder baten esan dabenez. Ara bere

Itz gomutagarriak:

«Ez ete da ba gure aldi au, aldakera ta zalapart ariñen aldia? Gaur egun batetik bestera goyen diranak bera yausten dira, eta bekoak gora igoten dabe; lagunak eta gizarteko taldeak leyaz aldatzen dira, baña gauza bat oartzen da; iñor be bere mañan pozik ez dagoala. Eta egin-egiñean be, bakoitza bere bizikeran pozik ez egotetik, soñzen dira ainbeste goñoto, ainbeste asare, ta ainbeste naspil.

«Gizonak ba, gaur egunean, zuzenduko dituan argi baten berarizko beañizanean aurkitzen dira. Eta begira; gure erlejiño done, ziñeste katolikotañen galaldi berezia da, bizikera gustietarako, eta bizitzako gora bera eta egoera gustietarako, arau'bat, erabagi bat, emotea eta ez buruzkoa eta utsa, egiz eta benetakoa baño eta au da; beañekoa danaz onoimen edo birtute egitea. Eta ara or Garikoitz agur'garria, onoimen ofen ikasbidea emoten bere bizitzako mota ugari-dun egoera gustietan.....

Beste aldetik, gure aldi oneitako bes-

te izakereari Ume Yosu'ren Terese agur'garriaren deun izakera eder eta betikoak erantzuten dautso.

Eta izan be, gustiok yakin eta somatzen dogunez, gure aldi onen bigaren izakerea etenbako igikun eta egin beañ da. Len urteetan egiten zana, gaur egun baten egiten da.

Mundua burtzoragarriro dabil. Baña ibiñze eta aldakuntza oneitan lañegi aztu egiten da bañeneko aldin edo balioa eta egite ta deuntasun gustien egizko irabazi edo merituz, eta au besterik ez da maitasuna baño, Yaungoikoaren Biotzak agertu dauskun eran.

Beste onoimen (birtute) batzuk beañekoak dira, baña danen gañetikoa maitasuna da, eta beronek besteak erabileran egiten diran utsak osotuten dituz.

Berau Yaungoikoaren egizko maitasuna da, eta or'exegaitik lagun - urkoaganako maitasuna; benetan Yaungoikoa maite ba'dogu ba, nai ta ez maitatu beañ doguz Yaungoikoak maitetu dituanak, bere bizia eurakaitik emon arteraño, geugaitik emon daben lez.

Ara ba or Ume Yosu'ren Terese agur'garria, luña ta zerua arituteko, zerutik luñera etoñitako maitasuneko benetako lorea.....»

Egiz esan geinke ba, Eleizak doneak, gaitz bakoitzarentzat, osakai egokienak emoten dauskuzala.

¿Ez othe zira gurea?

Deun edo zoriontsu bañiok dirala-ta, gauza edera idatzi dira, baña gari artean iruntzi ezin geinkezan lastotxoak be aurkitu doguz.

Parantzetañ aldizkingi eder batek, irakurgai baten, burutzat auxe ipiñi dau: *Un saint bien français Michel Garikoitz*. Iribañeari eutsi ezinik neurekau-

tan esan neban: Ez gaituk lelo txarāk
ibili euskaldunok, pozařen, zoriontsu
bari bat daukogula-ta....! Idazle ořek di-
ñona egia ba'dok agur gure poza....!

Eta benetan yinok prantzez-prantzeza
dala eta diñoanean zer edo zegaitik
izangok, ořek prantzezok yakunak ei
dozak eta...

Beste aldetik osterā bere abizen *Gari-
koitz* edo *Garikoetxe*'ri begiratuta argi
yagok abizena euskaldun utsa dala. Eta
abizena gurea euki ezkerō, bera gure
urēkoa beintzat izan bear... Idazle ořek
ba ukondoa sartu bear izan yok....!

Onetan nagola mořoitxoā eldu yat,
Bayona'n argitaltzen dan «Gure Herria»
aldizkingi ederāgaz. Ořila'ko zenbakia
da. Bereala zabaldu dot gai onetzaz
zerbait ete dakařen ikusteko, eta bai
ekaři be! eta neure ezpai antzekook ar-
gitu eta pozez bete nabē abesti polit
bat *musika* ta gusti, idazle pantzetařari
Santagedaz abestuteko aukerakoa. Ara
emen bere lenengo atala:

MICHEL GARIKOITZ DOHATSUARI

Eskual Herriko semea
Eskual Herriko lorea,
Ibarren hantchet sortua

Ez othe zira gurea?

Eskual Herriko semea,
Eskual Herriko lorea,
Ez othe zira gurea?

¡Bai orixe! esanaz «Zer edo zer» atal
au pozik amaitu dot.

GURUTZEA

«Gurutza barik Yaunak damoskun
ez donokirik», Gurutzea ba,
Yosu on onak biotz-biotzez
 diñosku; maitatu;
¿Nok ba zoruna, Baña ez iñoiz
au onan dala, geure gurariz
ludi onetan astunegia
aurkitu? geugandu.

Gora nai bera Eta Gurutza
esker-eskoira astunik ba-da
yo alde bat nai auxe benetan
 bestera; astuna;
Gurutzak beti Gurutzagandik
urtengo dausku igestearen
eskier bide- leporatuten
 bidera. doguna.

Gurutza barik Gurutza maitez
ezin leike iñok eroan daigun;
erbeste au ba ez aztu Yosu'k
 igaro, diñona:
gogo onez baña «Nire zamea
daroyanak bai ariña bai'da;
laguntza daurki nire bustari
 oparo. leguna».

GABIREL.

UME YOSU'REN TERESE ZORIONTSUA

(1873-1879)

XI'n Pio agurgariak esan daben lez 1873'ko Urtañila-ren 2'an, zerutik luñera lora eder-eder bat yatsi zan.

Aleçon, Parantze'ko urian yayo zán, guraso onbidetsuen alaba bikaiñ au. Bost aiztetatik berau izan zan txikiena, eta beste laurak ondiño bizi dira, gustiok lekaime (monja); iru karmeldafetan, eta laugarrena salestar-lekaimetxe baten.

Ume buru-argiduna izan zan; iru urte bakarik zituala ba, bere oldozpen sakonagaz gustiak afituta itxiten zituan; ezagutzen eben gustiei begi-begiko egiten yaken ume zoragarria izan zan.

Adin onetan asi ta bere izakerea bezau eta laztasun bidez zuzentzen alegindu zan, biotzez maite eban Yosu'ri atsegin emotearen.

Lau urte eukazala ama il yakon, eta bere aita, Lisieux'era biztokia aldatu bearean aurkitu zan. Efi onetan lekaime beneditaren ikastolara yoaten asi zan. Ixil eta bakar-zalea bere atseginik aundiena kistar-ikastia ikasi ta «Kisto'ren Antz-bidea» eta Ebanjelioa irakurtean aurkitzen eban.

Zortzi urtedun zala gexo gogor batek eriotzako zorian ipiñi eban, baña Ama Miren Sotzetz Garbiak, iribañez agertuta, osatu eban.

Aldi atan oi zan lez, lenengo Yaunartz aamaika urtegaz egin eban, egun pozkari

onetarako bañiz bere biotz edera aureko lau urteetan ardura andiz gertatzen alegindu zan.

Amairu urtedun bere gogo argia kezka zofotzak ilundu eben; eta bañengo samintasanak ugaritzen yakozan, lekaime sartzeko eukon guraria ondiñok ezin ebalako bete.

Éroma'ra ibildeun bategaz egin eban osteran, XIII Lon Aita Santuari amabost urtegaz karmeldar sartzeko baipena eskatu eutson, baña Doipuruak nagosien eskuetan itxi eban. Azkenez bere guraria andik bots ilabetera lortu eban. 1888'ko Yoñala'n Lisieux'ko karmeldaren lekaime-txean saftu zan.

An be, Yaunak maite dituanai bialtzen dautsezan samintasanak itxaroten eutsen. Gogo-samintasan gafatz, ilun aldiak, gogo-leortasanak inguratuta bizi izan zan, baña, bere gogo dontsuak bañengo bakea iñoz ez eban galtzen; añano egazkarien antzera, deuntasunean gora ta gora igoten eban.

Nagosientzat esanekoa, idekoentzat leuna, menpekoentzat begirune andikoa izan zan. Bere gogoa ume batek amaren altsoan uste osoz ipiñten daben lez, Yaungoikoaren beso erukitsuetan ipinten eban, eta ez eukon itz, biozketa eta egiterik yaumaitasunez egiten ez ebanik.

Olantxe bizi izan zan gexo astun baten

ondoren 1897'ko Irailaren 30'an deun ospeaz il zan arteraño.

Nagosiaren aginduz «Gogo baten edestia» izenaz bere bizitza idatzi eban, bere idaztietan idazle trebe ta olefkarri bikaña agertzen dalarik.

Loratxo onen deuntasunatzaz itz egiteko tokirik ez dauku baña, bere bizitzan idatzi zituan itz oneitan zerbait ikusi geinke: *Iru urte neukazala asita, iru miñutu etxataz igaro, Yaungoikoaren aúfean nagola oldoztu barik, eta Yaungoiko onari iñoiz ez dautsot ukatu.* Beste toki baten diño: *Donokian Yaungoikoak neure guraria asetuko dau, lufean neure guraririk iñoiz be ez dot egin-eta.*

Bere alatzak arigariak izan dira. Auxe dala-ta Eleiz Legediak (K. 2101), il da berogetamar urte igaro arte deuntzeko auzia ez dala asi bear aginduta euki afen, XV Benedicto'k legazka berezia egin dautso.

Ara ba gogo dontsu bat, il da ogetasei urte bañu zoriontsuen artean ipiñita. Bizi izan ba'litz berogetamar urte baño etzitian eukiko.

Egiz esan geinkez ba, XI Pio Doipuruak esari dautsezan itz oneik: «Au Yaunak egin dau, eta arigaria da geure begien aúfean».

Bere ospea ludi gustian zabaldu dala yakiteko, zertzelada auxe da naikoa: «Gogo baten edestia» izenagaz argitaldu eban bere bizitza edeña, izkuntza oneitara biurtu ta argitaldu da: ingalanderaz; alemaneraz; portugaleraz; polakeraz; olanderaz; yaponeraz; malteraz; españeraz; efuseraz; gerkeraz; armeneraz; anamiteraz; tamuleraz; bretoneraz; araberaz, kataleneraz eta...

Euskeraz noz?

¡Albait lasterén izango al da! m'tar G.

ZER EDO ZER

GIZONA, OLDOZKUNAK DARABIL

GIZONA zuzen ala oker, baña oldozteko (pentzetako) gai danean beintzat, oldozkunak darabilela geinke.

Oldozkun onak daukozana, oker ibiliaren zuzenduko da, oldozkun txarrik darabiltzana goiz edo belu okertu be esan bai...

Au sentzunak eta egunoro dakusgunak erakusten dau. «Araña burutik galizen asten da;» Gizona be bai, geyenez.

Belbil edo automobilak argiak zuzen ezpaditu, luzaroan zuzen ezin ibili leike. Gizonak be oldozkunak zuzentzen ezpaditu, bere egiteak zuzen ezin erabili leikez.

Oldozkuna ta irakurgayak.

Eta ezin ukatu leiken egia da, gaur egunean yakinbiderik zabalena irakurtea dala, eta beraz gizonen oldozkunik geyenak irakurteak darabiltzala.

Norbaitek zer gogoz irakurten daben yakiñaz bakarrik zer oldozten daben yakin geinke. Gizona irakurten dabenen

gañetik yartea baño, irakurgayak gizonen buruaz yabetzea erezagoda.

Irakurgayak egizko ta zuzenak ba dira, oldozkuna geyenez, egizko ta zuzenak izango dira. Eta irakurgayak guzuzeko ta okerak ba dira, oldozkunak, eta egiteak be bardiñak. Edozeñeri esan geinkio beste esakun baten antzera: «Zer irakurten dozun esan egidazu ta zer oldozten (pentzatzun) dozun esango dautzut, eta nor zarean be bai.»

Irakurle geyenentzat, ba, auxe arau au ipiñi geinke: Irakurten dabena oldoztu: oldoztuten dabena egin.

Oneik egi argiak dira baña... guzurak ba'lira askok erezagoda zifnestuko leukiez. Beraz,

Irakurgayekaz arduraz!..

Edozer egiteko eskubiderik ezpadago, edozer oldoztuteko be ez; ezta edozer irakurteko.

Gustitarik irakuri bear dala esatea, ba, kirtenkeri utsa da.

Danetik yakin bear dala ta gauzak ondo yakiteko txar eta on irakuri bear dala?

—Tira ba! Baña orduan yanari onak zeintzuk diran yakiteko, kaltegarri diranak be zer dala-ta ez artu?

Bultzi bat egiten dabenean; burdinbidetik bialdu baño len, zer dala-ta albo bide lakaretik ez bialdu, bide zuzena zein dan ondo yakiteko?

—Ori zorakeri utsa litzake.

—Bai ezta! Eta edozer irakurtea ez? Gizona! Gustitarik yakin bear bada... Baña ez! Guzura egitzat irunsteko ariskuan yariteko eskubiderik inok ez dauko.

Bere amaren kaltez itz egiten daben irakurgarari laguntzeko eskubiderik daukon seme onik ez da.

Beraz Eleiz Ama'ren kaltezko irakurgairik irakurteko eskubiderik katoliko zintzo danak ezin euki.

Ezta katoliko *epela* danak be.

Eta katolikotar askoren obena orixe da.

Zoritxarez katolikotar burua egiten daben asko dira gai onetan euren bear-kuna hetetan ez dabenak.

Eta bear-kun au iru eratara beintzat austen dabe. Ala txarak irakuri; ala epe-lari lagundu, ala zintzoari lagundu ezaz. Eta, uts oneitafik sofitzen diran kalteak nok aztertu? Gaur eguneko gaitz eta naspilen sustar bat ortxe aurkitu geinke.

Gaur egunean irakurgayen, eta batez be egunorokoen yaube dana, gizonen yaube da.

Orixo da ba,

“Gaurko Izkilu edo Arma”

Izen onegaz, Donosti'ko ARGIA deritxon asteroko ederak italeratik euskertuta, argifaldu daben idazti txukunak diñogun au argiro ta garbiro egiztuten dau. Euskeraltzalea «Arbelaitz» buru-

nurdun, euskal-idazle trebea da. Idazti ori mamin utsa da.

Gauza geyago; ederagorik eta egokiroago toki gitxiagotan ezin leikez esan, batez be egunorokoen indar izugariatzaz. Gai oretzaz irakuri dogunik ederena dala deritxogu. Zorionak egileari! Eta irakurle, erosi idazti ori ez yatzu damutuko-ta.

Izan be, txaren aurka onak; erdiz-erdizkoen aurka zintzoak: itz baten; irakurgai txara onen ugaritasunaz bakañik ito geinke.

Au egiten alegindu ezik safitan gertatzen ikusiko dogu: Gizostearen bearizanean aurkitzen gareanean, etsayen aldera iges egingo dauskula. Gizonaren adimenen yaube egiten ezpagara, bere yaube ez gara izango, eta gure alegin geyenak alperekoak izango dira. Irakurgai onak irakuri; irakurgai onai lagundu eta irakurgai onak zabaldu...! Eta euskaldunei euskeraz» «Yaungoiko-Zale»ko bazkideen bear-kuna auxe da.

Eta gai au amaitzeko ara emen be

Txarito etoriko ez litzaken asmo bat.

Parantzetañak euren izkuntzaren zale-zaleak dirala eurak be bai'dakie eta... zoritxarez edo geuk be bai. Bakotxak berea zaintzea, inori kalterik egin barik, ondo dago. Ara ba, Gustavo Téry pantzetañ idazleari pantzetañ elearen aldez egiteko zer otu yakon. Idazle onek eskatzen dau, iragarrietan ta agirian agertzen diran pantzetañ zuzen-idañkera edo ortografiaren kaltezko uts bakotxa 20 franco usin edo multeez zigortzeko; eta osterantzeko pantzetañen utsak 50 francogaz. Eta bere asmo onien aldez ara ipinten dituzan ziyoañ:

Irudi nabarmenak agirian ipinteko es-

kubiderik ez dago, eta zigortu egiten dira. Zer dala-ta ba, ez zigortu izkuntzari kalte egiten dautsen iragarriak? Gure amaren izkuntza, ardura ta begirape-naren duin ez ete da ba?

Au gustiz zuzena da, (berak diñonez).

Órez gañera, polizi legeak pantzeta eta atzeritarrak be aintzat artu bear ditu ez. Alan ba, atzeritar ala pantzeta ez yakiñak, pantzeta izkuntzaren arauak ez ete dituz zaindu bear, eurak saltzen dabena onena dala ormetan iragariten daben bakoitzean?

Zer deritxozue?

Bide laburra ezta? bakan samara ez-palitz.....

Olango gauzak geuri iñoz bururatu yakuz, baña, azaltzen ez gara azartu, zoro-etxerako txartela etxera bialduko ete dauskuen bildurez...

Órenbeste barik be, amaikatxo entzun bear izaten yoguk.....

Dana dala, arek dautsen zaletasunetik epel askok gure izkuntza ederaganako maitasuna ugaritzen ikasi leike.

Eta Téry'k eskatzen daben zigoira irakurgai txaren kaltez baño ezpada be ezariko ba'litz, a zelako bakea izango geunken....!

¿BEREZ?.. ¡BAI ZERA!

Gizon antzeko asko
dakustazanean,
zorakeri artean
bizitza gustian,
lufeko gauz utsetan
zoruna bilatzen,
neurekautan yaften naz
auxe gogoratzen:

«Begiak non dituez
gauzak ikusteko?
Ortze zoragañirik
ezta oñeintzako?
Ludi ederau berez
eintzat esten dabe?»

ñor ezta, bere
Egile ta yabe?
Egile barik ete
ainbeste ondasun?
Ezerezetik soñtu
ainbat edertasun?
Ezerezetik eguzki,
ilargi ta izañak?

Ezerezetik arkaitzak
ta mendi garayak?
Ezerezetik itxaso
eta ibai gardenak?
Berez argitasuna
Berez gaba iluna?
Berez aize gozatsu
ta ekaitz ituna?
Berez negu baltza ta
udaldi argia?

Berez udazken gozo
eta udabaria?
Berez zugatz tantayak
bedar eta lorak?
Berez ainbat motako
landara txukunak?
Berez soñtuak dira
abere piztiak?
Berez agertu dira
txori, egaztiak?
Geu be berez egintzat
esten gaituana,
ondiño ba'litz norbait
ziñestu leikena
«Oñek sentsunik eztau»
da esan geinkena,
zerenak yota dago
oñen adimena».
Eta oñez gañera
bakañ - bakañean
esango neuskio nik
ixil belañan:

«Goiko Yaunaz aztuta
sañi yabikena,
eskeñ ala eskumaz
beti dok eñena,
biotz ustel, ta utsik
sañi adimena:
jgogoz eñen bikotxa!
¡Orixe txañena....!»

SASPI ZARDAYAK (1)

Aita batek saspi seme alkar artu ezin ebenak eukozan.

Euren alkar artu eziña andia zalako, saritan ezbayak lana be galerazo egiten eutsen.

Egunerik - egunera asareak ugarituz yoyazalako, auzokide zikoitz batzuk, sendi atako asareetatik onura atara gura eben, eta aitari, semeak ondoregabetu ta beste batzuei ondasunak itxiteko esaten eutsen.

Egun baten zar agurgarriak bere aufera saspi semeai deitu eutsen. Saspi zardai (palu) asagotu edo txortaturik erakutsiaz esan eutsen:

—Auxe zardai-txořtau zati bi egiten dabinari bereala eun ogerleko emongo yautsadazat.

Banan banan danak euren indarrik neur-

tu ebezan, baña alperrik nekatu, ondoren esan eben:

Ezin leike apurtu.

—Alan da be—esan eban aitak—gauza erazagorik etxagok. Ikusi eikezue.

Itzok esanaz txortea azkatu eban eta banaka gustiak errez-errez apurtu zituan.

¡A! olan gauza eraza da—esan eben gustiak batera—Ume - eskuak be naiko dira ofetarako.

Orduan aitak yardetsi eutsen:

Ara ba, ene semeok; zardayok zuen irudi dozak. Alkartuta irauten dozuen artean, zardayok asagotuta diranean lez sendorik iraungo dozue; eta inok ez zaitue besauko. Baña alkartu bear zaituen lokařia apurtuten ba'dok, ementxe zuen oñetan zatituta agertzen dozakan zardayan antzekoak izango zare.

Etxe, uria, eta abefia argaltzen dira banantzez, baña alkarturik dagozanean ezin leiz besau indarrez. **M.faf G.**

ZER EDO ZER

Edari zalekeria,

G dari zalekeria, gizar-tean ixurri gal-garri bat lez, zabaldu dala edonok dakien gauza da. Eta Manning, kardenal yakintzuak bere aldian baño, iz-pide geyagoz, gaur esan geinke:» *Gaurko gizar-tean danik gaitzik andiena, ugoŕ-keria, (alkolismoa) da*»

Edari zalekeriaren kalte izugarriak ikus-teko begiak zabaltzea naikoa da. Langile artean batez be ikaragarizko kalteak egi-ten dituala ikusteko asko ibili bearik ez daukogu. Osasuna galtzea, sendiaren sa-kabanatze, ta zoritxar geyenak, ugoŕkeri-aren loŕatzak dira.

Edari zalearen ume gaxoen betartean, aŕak yotako landarearen erkintasuna saŕi aurkituko dogu; eta erkintasuna, gaitz galgarri gustientzat luŕ egokia dala, esan bearik be ez dago.

Ezaugarri lotsagarria.

Eŕi bat edari zalekeriak yota dagoan ala ez, yakin gura dabenak, ardanetxeak zenbatu bearik ez dauko; zenbat edaten dan yakin bearik be ez.

Naikoa da zoroetxeak ikertutea; espe-txe zuzendariei galdetzea; ume erkin eta

gexotiak zenbatzea; eta beste barik igarri legi, eŕi bat edari zalekeriak yota dagoan ala ez. Eta tamalez eta lotsariz autortu bear dogu, Eusko-eria, geure eŕi maite au, aspaldiko urteetan edari zalekeriak amil-tegi-ertzerantza eroaten diarduala. Eta gaitz andi au osatzeko,

¿Zer eginen da?

Gaitz au, igarri barik, abendaren unetar-año sartzen da, endekatuaz goyazala gus-tiok dagusgu, eta osatzeko, zer egin da? Gauza andirik ez beintzat. Eta bitartean, gaitza auŕera doa. Eusko-abendaren len-go sendotasunaz ez gara aŕotu bear, en-dekatuaz doyala ikusteaz lotsatu baño. Eta eŕua iñori leporatzen ez gaitez an ibi-li, onetan gustiok eŕudun gara-ta. Goi-koena ta bekoena; egintari ta menpekoe-na, yakitun eta ez yakiñena, eŕua gustio-na da. Baña batez be, ugoŕkerien kaltez zerbait irakatsi al izan eta egin ez dabe-nena; eta al izan aŕen, galerazten alegin-du ez diranena.

Sustafera yo bear da.

Egia esateko, edarikeriaren ondorenak esituteko, igaro diran urteetan zerbait egin da.

Zoroetxeak zabaldu dituez; erietxeak ugaritu; ume erkiñentzat osasun-etxeak iragi, eta onetan txindi asko eralgi be bai...Ori gustiori ondo dago; baña ori bakañik naikoa ez da. Ori armiarma bizirik itxi ta amareunak kentzea da, gaitza sustañkatzeko alpeñeko ez da izango, baña asko gitxiago be ez. Efenari maku-loak ipintea ona da, baña efen yañi eztaiten, neuñiak artzea obe.

Eta pozez beterik Bizkai'ko Aldundiak bide ori artu dabela ikusi dogu. Oraintsu ardanetxeak uritzeko aftu daben erabagiaz bide oñetan sañtu da. Eta bide oñetatik yañaituko al dau, aurkitu leikezan eragospenakaitik atzerantz egin barik! Eta, orain ugorkeriaren kalteak azaldu baño len itaun oneri erantzun dayogun:

Edari gustiak kaltegañi ete dira?

Edariak, ugorki edo alkoholagaz egindakoak diranean *gustiak* kaltegañiak dirala osagile yakintsuenak irakasten dabe.

Ardaotzaz eretxi batekoak ez dira. Ardaoa yan barik edatea beti kaltegañi dala esaten dabe; eta yatorduan edatea be, *geyenak* ontzat ez dabe emoten. Beste batzuk ostera, yatofduan zerbait ardao (ona gero) edatea yanaria egozteko ta urdala bizkoñtzeko egokia dala esaten dabe. (Hermann).

Osakai lez ona izan leikela ez dogu okatzen. Ofexegaitik edo, Paul deunak bere ikasle Timota'ri urdaletik argal ebiñelako, ardao apuf bat artzeko esaten eutson. (I Tim., V-23).

Baña dana dala,

Edarikeriaren ondorenak, negañgafiañk

dirala ikusteko, lengo ilean Suiza'ko goztain gustiak eleiztañai zuzendu dautsen idazki eder baten diñoena ipiñiko dogu. An ugoñkeriari gogoñ egiten diardue, eta

gotzañak gai oñetzaz idatzi daben idazki-an ara zer diñoen:

«Emakume ta ume gexoak zaintzeko dagozan suiza'tañ bazkunak, euren eskue-tara etoñten diranetatik lautik bat, ugoñkeriari ezañten dautsez. Umeak ondo azteko ardurarik eza, eta gasteria gaitzakerian goiztañ izatea, ugoñkeritik sortzen da. Amar urtean suizatañ uri baten izan diran 1812 eskontzaustetik 670 argiro ta eskier ugoñkeritik sortu dira.

Oraintsuko zenbatzak agertzen dabe, 100 zoratatik 20 ugoñkeri edo edari zalekeriari ezañi beañ yakozala, eta osagile yakintsuenak argiro irakasten dabe, ugoñ edo alkola, gizadia endekatzen dabenen artean lenengo tokian ipiñi beañ dala».

Alkola ta gaitzakeria.

«Gaizkin edo kriminalik erdiak baño geyago edari zaleak dira. Erki bateko espetxe - zuzendariak, ogetamañ urtean ikusi dabenez, autoñtzen dau, 100'etik 70 inguru, zuzen ala zeañetara, edari zalekeriak espetxeratu dituala. Idazti Deunak irudiz edatunari diñotso: «Zu itxasoaren erdian lotan dagoanen antzekoa izango zara, lema edo timoya galdu daben itxastaria lakoxea.» (Prov, XXIII - 34). Eta edatunak izan be, adimen, kontzientzi ta ziñesteko lema galtzen dau. Betiko bizitza galtzeko zorian yarten da. Paul deuna da diñoana: Mozkoñkeriari burua makuñtu dautsenak, lapuñak lez, zeruko zorionaz ez dira yabetuko. (I Kor, VI-10)»

Alkola ta osasuna.

«Ugoñ edo alkoholak osasuna ondutzen dau. Idazti deunean irakuñten dogu: «Ardaoak gizon asko ondatu ditu», (Eccli, XXXI-30); bañiz «neuñiz dabilenak bizitza luzetzen dau». (Eccli, XXXVII-34). Gure artean, beste tokietan lez edarikeriak er-

iotzak ugaritzen ditu. Eta edatunak bere buruari bakarik kalte egingo ba'leuskio! Baña egunoro oartzten dogu ondorengoai kalte egiten dautsela..! Edatunen semeak, geyenez erkiñak, gexotiak, eta kadenak izaten dira; asitik edenduta dagozan landara gaxoak, gasterik auldu ta ilten dira. Zuzen egoan bai, suizataf epaikari bat au esan ebanean. «*Edarikeriak sendia sakanbanatzen dau; zoroetxe ta espetxeak betetzen ditu, eta gexo epel edo bulareko-agaz, obitegien ornitzale andia da*».

Egi andia, geure eri maite onetan egunoro dakusguna! Eta ori gora-bera, edariak alikatu, berotu ta indara emoten dabela-ta, mundu gustiak ukondoa yasoteari emon dautso! Eta alan askok uste ez aren, egi andi bat auxe da: *Edariak kalte egiten dabela; edariak ez dabela alikatzen; ez dabela berorik eta indaririk ugaritzen*. Eta ez baferik egin; beste zenbaki *baten* (J. I.) diñoguna egiztuko dogu-ta.

Edariaren ondorenak azaltzeko arabe-tarak emen ipinten dogun

Ipuln pollif bat

dauke. Eurok diñoenez, Noe'k lenengo mastia ipiñi ebanean; tximiñoen odolaz busti ei eban, eta ofexegaitik, apur bat edanda dagona tximiñoenak egiten asten da. Gero leoiaren odolaz busti ei eban; ofexegaitik zerbait geitxoago edaten dabenean, leoyenak, buruka ta abar, egiteko gertu egon oi da; eta azkenez txafiaren odolaz busti ebalako, mozkortzen dana abere onen antzeko biurtzen da.

Eta amaltzeko.

Geuretzat esandakotzat artu daiguzan, Suiza'ko gotzaniak len aitaturiko idazkian diñoena: «Abertzaletasunak, eta geyago Yaungoikoaren aintzak eta geure anayen

osasunak, uyol galgafi oni eutsitera biartzten gaitu; gauza gustien gañetik geure eriaren gorputz eta gogoko bizitza zaindu beaf dogu-ta.»

GAMA.

KARMELGO AMAREN ONETAN

*Nok euki daiken
zabal-zabalik,
Karmelgo Ama
gozoa,
ludi galtzori
aundienetan
osoro zure
altzoa,
itxu-mustuan
bertan sarturik
gorputzaz biotz
osoa,
garbi-garbirik
zaintzeko beti
ludi gañian
gogo.*

*Zure besoen
laguntasuna
nigaz dagoan
artian
nire biotzak
eztau jakingo
samiñik zer dan
ludian,*

*gozotasunak
nabaitu-aren
ugari-samar
gañian,
malko tantaka
beti dagoan
biztoki onen
erdian.*

*Arantzaren bat
daukodanean
saturik biotz
barnian,
eroapenaz
emon zadazu
indar apur bat
lurian,*

*gogo-etsayak
bein-da-betiko
sartu artiño
azpian,
artegatasun
apurik euki
ez dagidantzat
soñian.*

Ormaetxe'taf Kepa.

ZER EDO ZER

Egizko erukia.

Benetako erukia, geideaganako egizko maitasunetik sortzen da, eta egizko kistař maitasuna, Yaungoikozko maitasuna bakařik dala gustiok dakigu.

Besteren zoritxařaz erukitzea, ba, Yaungoikoaren agindua da, eta erukiak, biotzekoa danean, besteren zoritxařa al dogun neuriz osatzera bultz egiten dausku. Eta ori al bait zarata gitxien eginda, kistařok ba, onetzaz Yosukisto'ren agindu argia daukogu: «Ukař edo limosna egiten dozunean, zure eskeřak ez dayela yakın eskumeak egiten dabena». (Mat VI,-3).

Au kistař gustiak dakiena edo... yakın beař dabena da. Yaungoikoagan sustařa ez daukon erukia guzufeřko erukia da ba. Egizko erukia txindi (diru) ona lako-xea da; kistař biotzetan sortzen dan lora edeř samuřa.

Beste gustiak guzufeřko txindiak dira, *papelezko lorak* bakařik.

Aita Santuaren erukia.

Gure Aita Santu maitagařiak, Paul deunaren itzak arautzat artuta, «txařa onaz garaitu beař dala» agerturik, zoritxař gus-

tietan egizko kistař erukiaren ikasbide edeřa emoten dausku.

Baņa batez be, Erusia aldean basati-keriak erakari dituan zoritxař eta gose ikaragařiak garaituteko egin alak egiten diardu. Arek eskařtxařez erantzuten dau-tse, Eleizari ta gotzain eta yaupari (abadeař) guda gogoř egiņaz; baņa alan da gusti be, Aita Santuak Erusia'ra bialdu eban batzordeak oraindik be, lan gogofe-an diardu.

Agintariak-eta, eskař ona agertu beaře-an, eragospenak ipiņi eta zoritxařak es-taltzen, (atzeřitařai beintzat) alegintzen dira, baņa erusitařen artean goseak lořatz sakona itxi dau, eta ondiņo be gosea ken-tzeko lan asko egin beařa dago.

Au egiztuteko zertzelada oneik gogoan ařtzea naiko da.

Aita Santuak bialdutako batzordeak 1.700 otsein euren lan edeřean laguntze-ko dituz. 500 yatetxe txiroentzako, 250 eruki-etxe umezurtzentzako eta abař, eta kistařak bildutako diruaz 120.000 gosetiri yaten emoten dautse. Ezin geinke esan ba, *nonbait* irakuři dogun lez, Erusia'ko gosea *lengo* gauza danik orain be, bai diraba ugari biziteko lain yatekorik ez daukenak.

Orixe da efukia. On egin, nori egiten yakon lafegi begiratu barik, on egin txaf-to egiten dauskunari, besteren zoritxaragaz biotzez efukitu. Auxe da kistafoi da-gokigun efuki bakafia.

Guzufezko efukia.

Au olan da; baña... txindi onaren ondoan guzufezkoa agertzen dan lez, kistaefukitu onen ondoan, beste efuki antzeko bat, kistaefukitu usañik be ex daukona, zoritxaraz sariegitan, kistaefukituen artean be, agertzen da. *Modako* efukia dala esan geinke. Eta *modako* gauza geyenen antzera, baregari zamaña.

Efukitzen ez dan efukia baño gauza baregariagorik asmau ete leike? Ba, gure gizaldi onetan olakoxe gauzak be asmau egin dira. Besteren zoritxarai lagundu bai, baña efukitu barik, yolaz eginda. Negar dagianen malkoak leortu bai, baña bere lepotik bare edo dantzan eginda. Negar egiten dabenari lagundu eta bere zoritxara aitzakitzat artuta yolaz eta dantzan egitea, gauza itxusia ez ete da? Ba, ogei gizaldiko *zibilizaziño* (?) gustiekaz ofaxeño eldu gara.

Ori auferantz yoatea ba-da... ni lengo lekuan gelditzea gurago dot.

Oin efi baten zoritxar ala ixufi galgari bat yausten ba'da, atsekabetuei laguntzeko, yolasak asmetan dituez; yolas edo dantzan egiteafen onenbesteko bat emon eta biltzen danaren ondafak, zoritxarpean yausi diranei laguntzeko. Eta zoritxarpean gelditu diranen lepotik yolas eginda uste dabe, efukizko agintza txalogari bat egin dabela! Eta kistaefukitu zintzoak dirala uste dabenak be bai..!

Oraintsu irakufi neban, uri andi baten umezurtzei laguntzeko goizeko dantza nas-kagarfia *manubrio* ta gusti asmau ebela. Eta izparingiak oferi efukitu egintza deitzen

autson..! Ori anketako efukia izango da, baña biotzekoa ta kistaefukia, orixe bai ezetz....!

Ori be efukia ete da?

Oraintsu *gobernuak* yokoa basteer gustietan zabaldu dala-ta, sendiak ondatzeko baño ez dalako edo debekau gurarik (?) ebilela, aldun asko gogof yarki yakozan eta aufera eroaten galerazo eutsen, bai dakizue zer dala-ta? Ba, yoko-etxeak onenbesteko bat efukitu-etxetarako emoten dabelako!!!

Oretara ezkerro, lapur talde bat edo oin *modan* dagozan *pistoleruei*, ostuten dabenetik zerbait efukitu-etxetarako emotea otuten ba'yake, bakean laga bare ezta..?

Ibili ta ibili goyazan bidetik ofaxeño elduko ete garean bildur izateko da gero!

Tafagona'ko gotzainen erabaigi edefa.

Goigoterki onetako gotzain (obispo) gustiak, menpekoei idazki edefa zuzendu dautse. Idazki ofetan argiro itz eginda, efukitu-etxe gustiei zero debekutzen dautse, yokotik eta abar datofen dirurik artzea. ¡Ondo egiña! Eta beste tokietan orixe egingo ba'lebe obe! Izan be, parixetarak eta, ziranak izanda, Yudas'ek biurtu gura izan eutsezan ogetamar diruak eleizarako artzen asartu ezpaziran, *odolen saneuria* zala-ta, zer dala artu lekiez, yokotik eta abar yatorkezan diruak ainbeste *gogo ondatzeko* erabili ta gero?

GAMA.



NEURE LORATEGIAN

*Lařosa landara
lerden ta mardula
daukot nik etxeko
lorategian,
lora bikañenaz
apainduten dana
urte gustietan,
udabařian.*

*Bere lora eder,
legun, gozatsuak,
saritan dakustaz
intzez beterik;
eguzki izpiak
laxtantzen daunean,
begitanduten yat
urez yantzirik.*

*Eskar onez dakust
lurinkai gozoa,
Egile onari
beti bialtzen;
ta neure biotzak
zer egin bear daun,*



*berari begira
nabil ikasten.*

*Ařetaz begira,
bere txořten dana
arantzaz beterik
dakust, dagola;
luřeranz begira
arantzaxo danak,
eta lorak bařiz
goirantz, zerura.*

*Irakatsi ona,
neurekautan diřot,
lora landareak
emoten yaustak;
«Goiko zorun lorak
lortu gura bo'daz
emen yasan bear
arantza latzak.»*

GABIREL.

Txorren=tallo; yasan=suřir.

ZER EDO ZER

ZEZENKETAK DIRALA-TA...

Gizona ta abereak.

BESTE gauza gustiak lez, abereak bere aintzarako ta gizonaren onurarako Yaungoikoak egin zituan. Ainbeste muetakoak dirala ikusirik, gauza askotarako dauken gaitasun arifariak, eta inok azaldu ezin leiken olde edo instinto bardingabeak, Yaungoiko Egilearen, almen, yakituri ta ontasunaren agerakai edefak dira. Yauna goraltzen dabela ba argi dago.

Gizonarentzat onuratsua dirala bariz, esan beafik ez da. Gizonaren laguntza-leak egunoroko lanetan dirala, nok ez dakus? Gizonak beaf dituan yanzki, yanari ta osakai geyenak, abereak ez ete dautsoz emoten? Eta batzuk, yatorfizko oben ondoren, gizonarentzat kaltegarriak izan afen, abere, egazti eta zomofo edo mamutzak gustiak zerbait onura gizonari egiten dautse. Ala margo politakaz begiak atsegindu, ala abesti gozoz, belarriak gozatu, baita *begiak zabalik daukozanari* ikasbide edefak emon be...

Eta besterik ez aitatzeafen, erleak, alpehari langile izateko diñotse: txiñuriak, ardurabakoari, zufa izateko eta asto gi-

zaxoak epe-bakoari eroapena artzeko...
Eta,

Yaungoikoaren Ardurea

abereetaraño eltzen dalako, bakoitzari bizi bear dan tokirako yantzi egakia, biziteko beaf daben yanari berezia, bere bizia zaintzeko indafa eta etsayakandik iges egiteko zurtasun eta bizkortasuna ta abaf, txiki ta andi, abere, pizti eta zomofo gustiei oparo emoten dautsez. Diñogun au egiztuteko, Yosukisto'k esaten ebana gogoan artu daigun: Orma-txori bat be ez dala lufera yausten, Aita Zerukoaren bai pen barik. (Mat. X, 29).

Beraz, gizona dan gizonak

abereatzaz arduratsua izan bear dau. Zio barik ez abere, egazti ta zomoforik be, ez da il beaf, eta il beaf diranean be, al bait oñezerik gitxien igaro eraginda.

Abereak zio edo ezezoi barik ez dira zigortu beaf, eta gogoerkeriz gitxiago. Menpean daukozan abereen osasunaz arduratu beaf dau, eta beaf daben yanaria emon be bai, al dabenak beintzat.

Gai onetzaz kista askok be, era bitarats egiten dabe: leunkeri lafegiz ala go-

gofkeriz. Batzuk, batez be aberats askok, txakur ala katuei, euren menpekoai baño ardura geyagoz begirutzen dautse. ¡Ori kistar-zentzunik ez eukitea da! Eta oneztaz ara neuk ikusitako

Negar egite bafegari bat.

Uri andi bateko etxe baten nengoala, goiko oñean negar ulu ta gafasi andiak entzun nituan. Sendiko gustiak negařez ziarduen.

Atsekabe zorotzen bat gertatu zalakoan itandu neban norbait il ete zan, ala bat edo bat gaizki yaři ete zan. Eta ba'dakizue zer erantzun eusten?

Estimau euken «kattxo» bat il yakela, eta orixe zala ta, zirala ango gafasi gustiak!! Orduan ifibařez esan neutsen: Ostera be, esan beařko dogu *diran* gustiak ez dagozala *an...* Bermeo aldean...

Baña goazen aũfera.

Abereakaz gogořa dana, gizonakaz be geyenez gogořa izango da. Abereak geyegi zamau (kargau), eta gero bide barik eta eruki gitxiagoz, zigotzen dituana, astotzař bat dala esaten da, eta..... izan be bai. Eta ořelako gizonak (?) lagun-urkoagaz bardiñak izaten dira. Berandutxo baña, ondo ezagutu eban diñogun au, gaizkin batek. Bere gaiztakeriz urkamendira eroan eben gizonak, il baño len, inguruan egoan eři gustiari itz oneik esan eutsozan:

Txikitan abereakaz gogoř, ankeřa izan nintzan, eta oitura galgaři onek, gizonakaz ankeřa izatera eroan nindun. Orixe dala-ta, urkamendian ilten nabe.

Ori gusti ori olan ba'da, yolas egiteařen abereak iltea, basatikeria izango da ezta? Bai, ta ez txikia be!

Beraz, zezenkelak be bai?

Bai, yauna, eta izan leiteken andienetariko basatikeria. Au egia dala ikusteko, begiak zabalik eta... sentzun apur baten yaube izatea naikoa da. Eta gañera, len azaldu doguzan kistař irakatsietatik urak itufitik lez urtetzen dau.

Au bařiz, erdel idazle onenak be, batez be Selgas, Concepción Arenal eta Balmes yakintsuak argiro irakatsi eben. Ez luzetzeařen, askenengo onen itz bi bakafik ipiñiko dautzudaz. Ara bere itzak: «Nire ustez, yolas eřiti au, (zezenketak) *basatia* da, eta al balitz, zearo sustařkatu beař litzakena». «*Zibilizautako* eři baten izan beař ez litzaken oitura bat da». (1)

Ori olan ba'da, katoliko (!) asko zezenketara zelan yoaten dira? Eta egunoroko izpafingi katolikoak zelan aldezten dabe? Ori eurai itandu. Nik esango dautzut alde ořetatik katolikotar usañik ez dautsedala ařtzen. Eta gizonak eta katolikotar danak askozaz eskubide gitxiago daukela, yolas aldi bat igaroteko, bere anai batek bizia galtzeko ařiskuan ipiñita. Eta ez esan ařiskurik ez dagola, iganderik ez da igaroten ez - beař astunen bat izan barik - eta. Oin urte bi toki onetan ipiñi gendun, urte beten bařuan 159 gaizki zauritu ta 6 plazan bertan il zirala.

Beraz ařiskurik ez? Zer dala-ta ba, toki askotan zezenketetara bada-ezpadan Untziño deuna eroaten ete dabe?.. Eta ofegaitik ezpalitz be beste lotsabakokeri askogaitik debekau beař litzake. ¡Aditzaile onari itz gitxi!..

(1) Ara bere itzak: Los toros... «esa diversión popular es a mi juicio bárbara, digna si fuese posible de ser extirpada completamente»... «una costumbre que me parece indigna de un pueblo civilizado». (Balmes: El Protestantismo, t. II, c. XXXI).

Orexegaitik.

Eleiza, zezenketaren aurka

beti gogof egon da. Pio deun V'ak, 1567'n Elizaren zigorik gogofena ezafiaz, zezenketak debekau zituan. Eta gero, baldintza batzuk ipiñita, Kelemente VIII'ak 1596'n, doibazkatzea yaso eban afen, Eleizak beti kistař gogoaren kaltezkotzat zezenketak etsi ditu.

Orain iru urte Aita Santuak, yai basati onen aurka idazti gogofa, Tolon'go abere aldeko Bazkunaren zuzendariari bialdu eutson, oitura ori zabaltzea «gauza negař-gařia dala esanaz, eta yolas odolki ori, bazteřtzeko alegin gustiak egiteko» aginduaz.

Eta oraintsu, *L'Osservatore*'k be Italian oitura iguingaři ori sartzeko ibili dabezan asmoan aurka gogof idatzi dau, «Kistař gizabide edo zibilizaziñoaren izenean, yolas lotsagaři eta odoltsu ofi» guda gogofa egin beař yakola esanaz.

Eta geyegi ez luzetzeařen, Burgos'ko Eleiz Batzařaren erabagiaz esan daigun, «zezenketak lenago lez doibazkatzepean, eragotzita orain egon ez ařen, *zio asko* dirala bide, yolas ofetara yoatea kistařai debekutzen yakela» (Conc. Burgense, part, IV, Tit, 23, 2^o). Beraz, gure esanari yaramon egin ez dautsonak, Eleizarenari beintzat egin beařa dauko.

Gustiok dakigu, zezen-yolasa yolas basatia ta ankeřa dala. Eta basatikeria ta kistař leuntasuna ezin alkatu leikezala be bai. Eta beraz kistař *zintzoa* izan gura dabenak, yolas oferi aurka egin beař dautsola.....

GAMA.

Oařa.

Bai'dakit, Yaungoiko-Zale'koak, zezenketa zaleak ez dirala, «Yaungoiko-Zale ta zezenketa zale» batera izatea ez da ain gauza eřaza-ta. Baņa izan leiteke bat edo batek yolas oferi beař dan beste iguin ez eukitea, eta orexegaitik, gai ofetzaz «zer edo zer» idatzitea otu yat, aldi onetan txarřo ez dala etořiko ta...

ZER EDO ZER

YANZKI NABARMENAK DIRALA-TA...

Alpefeko yarduna?...

Gai onetzaz ekitea askoren eretxiz alpefeko yarduna da. Eta esan eta idatzi diranak idatzita, yantzi nabarmen eta nasayak, emakumeen artean zabalduaz doazala ikusirik, alantxe *dirudi*.

Alan *dirudi*, baña nire ustez *alan ez da*. Gogoz eta benetan egiten dan lan ona, alpefeko lana inoiz be ez da izango; lan au egiten dabenentzatb eintzat, besterik ezpalliz be, onuratsua izango litzake-ta.

Orez gañera *pisika* gayetan, egia ba da, «ludian ezer be ez dala galtzen», gogo arasoetan askozaz egi andijagoa da.

Oldoskun onak ereitea, alpefeko lana inoiz be ez da izango, olkoskun onak ba, goiz ala belu, gitxi ala asko, baña *beti* bere igalia emoten dau.

Eta eretxi onetakoa ez dan norbait etofiko bai'litzakit esaten: «ez ago gixaxo txafa, oferi ekitea alpefekoa dok... txarago dok... yaramonik ez yabek egiten eta ...ta abar», auxe erantzungo neuskio: «¡Um! ez yakiat ba, i be alpefkeriko arak yota ez ete agoan».

Alpefeko lana bai'dakik nortzuk egiten daben?..

Ezer egiten ez dabenak! Arexek bakafik!...

Pero Grulo'n egiak

Edozer gauza beaf dan lez erabiliko ba da, zertarako dan yakin beaf; eta yantzia yantziteko dala esango ba'gendu, *nobedade* andirik ez geunke esango.

Eta alan be, yantzia ipiñita gero *erdi yantzirik* agertzen diranentzat gauza bari bat esango geunke.

Au beñolako *Pero Grulo*'k esandako egietako bat da, baña, antxiñatxo gixaxoa il beaf izan zan eta, berak esandako egiak, Gofbeya'ko mendia baño andijagoak izan afen, askori aztu egin beaf izan yakez.

Alan ba, ez aztu, *erdi yantzita* norbait ikusten dozuenean, ez aztu, *yantziak yantziteko* egiñak dirala.

Baña egiak egi,

Zertarako yantzi beaf ete gara?

Yantzita ibiltea onetarakoxe da: *gorputzeko osasuna otz-beroetatik zaintzeko; girña txafei esi bat ipiñi, eta onoi-men edo birtutearen zaindari izan daiten*. Oretarako gauza ez dan yantzia, kistara

dan kistařak ez dau erabili beař; naiz ta modakoa izan!

Kistařak ba, *neufiz* yantzi beař dau, estaldu beař dana *ondo* ezta duta; *eraz*, lařegikeri barik, eta oitura *onari* begirata; eta *egokiro* bakoitzari bere mařan dagokionez. Aberatsa aberats lez, txiro (pobrea) txiro lez eta kistařa kistař lez. Ez aztu ba: *Kistařak, kistař ez diranak baño egokiroago yantzi beař dirala.*

Olantxe izan beař leuke; baña olan da? Gaur eguneko emakume kistař asko era ofetan yantziten dira? ¡Obe litzake!....

Yantziak eta gogoia ta eęiteak

Yantzikereak, askok uste daben baño gařantzi andijagoa dauke. Gure gorputz eta gogoaren artean dagon alkartasun estua dala-ta, gogoak gorputzari asko eragiten dautson lez, gorputzak be, gogoari asko eragiten dautso. Eta yantzia gorputzaren geigari eta atal bat lez dalako, gure gogoia batera ala besterantza makuřtzeko indař andia dauko. Au argiro ikusten dan gogo-legea da (1).

Yantziak oldoskunak aldatzen dituz, biozketak be bai eta eęiteakaz bardin yazoten da.

Gizon, naiz mutiko bat, gudari yantziten ba'dozue, berealaxe, gudarienak egiten asiko da; *payaso* yantzi ezkerero, bařegafikeriak egiten; eta abade yantzi ezkerero, lenen-lenen *Dominus vobiscum* bayetz esan!....

Eta lotsa barik jantzi ezkerero..... zer egingo dabela uste dozue? Gauza onik ez beintzat!

Diņogun au, eęi argia dalako,

Geyenaz darabiltzan yantzietatik, nor nor dan ezagututen dogu. Ařo yantzita

agertzen ba'da, ařoa dala esaten da, eta ařoa ezdana beři ařo yantzita ibiliko baltz, ibili ta ibili, ařotu egingo litzake; eta lotsa barik yantziten dana, be, len lotsabako izan ez ařen, bere eęiteetan gero ta lotsabakoago agertuko yatzue.

Eęi oneik, nor zer dan igarteko arautzat ařtuko ba'genduz, amaika lotsabako basteřetan ikusiko gendukez!

Emakume kistař askok yanskeran agertzen daben baño lotsa geyago ezpadauke biotzian, edeřa dago *mundua!*....

Alan da be bakoitzari berea.

Eęia da, asko ta asko gaiztakeriz baño buru arinkeriz yantzi nabermenez apaintzen dirala. Eta olan izatea obe da gustion onerako. Baña tira; buru ařiña izatea gauza ona ete da? Eta buru arinkeriz gaiztakeri ta lizunkeriarı indařa emotea, gaiztakeri andia ez ete da? Ori olan da baña, *modea* da-ta, iņoren bařegari izan ez gaitezana...Eta zer, nor da, iņok eza gutzen ez daben eta daneri agintzen dautsen *Moda* edo dana dalako emakume buru arin ori? Yaungoikoak gauza bat agintzen dabenean eta *Modeak* beste bat, bere buruari itzal apuř bat dautson emakumeak nori yařaitu beař ete dautso?

Ebaren alabak, burua makuřtzen *geyenez* zaleak ez dirala iņoz entzun dot; eta zer dala-ta *Modeari* burua makurtu?

Norbaitek yantzi ořeik erabilteko aginduko baleuskioe; «¡Ez orixe! ori baño lotsa geitxoago daukot! jain burubakoa ez naz!» esango leukien askok, *Modearen* aginduaren ařean burua apal-apal eęinda ikusten dituguz. Ori zer da? Burubakokeria, lotsabakokeria ala gauza biak batera?

Eta tamalgafia da baña

Euren burua ontzat dauken emakume askok orixe egiten dabe, eta kistař dira-

(1) Ley psicológica.

nak ez diranagandik, yantzikerari begirata bakañik berestea gauza ezeza ez da. Eta au lotsagaña ez ete da?

Ori bakañik ez. Eleizara, yantzi itxusi oñeikaz etoñten asañtu, aberatsak aufenen dirala! Oñek kistañ izatea zer dan ete dakie gero? Ba, yakinda etoñi ezkeru, zigor batēgaz atera beañ litzakez; eta ez yakinez ba'datoz, kistar - ikasbidea ikasten umeen artera bialdu! Paul deunak irakasten daben lez, «Emakumeak *lotsaz* yantzi beañ dau, eta *neufiz* apañdu». (I Tim. II, 9)

Emakume kistañak, ezin leyoe *moda txañei* yañaitu, eta beañkun onetzaz aztuta dabiltzazalako, Aita Santuak eta gotzaniak beste aldi batzuetan lez,

Erabagi gogoñak, baña beañ-beañekoak,

artu beañean aurkitu dira. Benedicto XV'ak Aita Santu gomutagañiak, bein gure Yau-na artzen uferatu ziran emakume bi, emon barik bialdu zituan yantzi itxusiaz yoan ziralako.

Eta oraingo Doipuru guñgari XI'en Pio'k, iñ onetan bertan, erabagi gogoñak emon ditu. Bera ikertzeko yoan ziran andiki emakume artean yantzi nabarmendunak be bai ziralako, Doipuruañen gelara sartu baño len, talde bitan banandu, ta besoñdunak estaldu barik etoñi ziranak, etxera bialdu zituan. Bai ei zan negaña ta zala-pañta, baña alpeñik...Aita Santua ikusi barik egon beañ!... ¡Oñdo egina!

Eta auñerantzerako agindu dau, bera ikertzeko datozenak, eskumutuñ eta samarañoñko yantziakaz etoñteko, bestela etxera!...

Lafontaine, Benezia'ko gongotzain eta kardenalak, abadeai agindu dautse, olan Eleizara sartzen diran emakumeak Eleizatik atarateko, eta Yaunartzeko ba'datoz, ez emoteko. Orixe, lotsabakokeria Eleizatik basteñtzeko, biderik onena ta labuñena,

Itzaldiai *bakañik*, guk emen darabilgun yardunai baño yaramon geyago ez dautse egiten.

Gogoñ egin eta...*aberatzai be bai*, Yaungoikoaren aginduak gustientzat baridiñak dira-ta. ¡Auxe egingo ba'litz!....

Alan da gusti be...

Batsuk, batsuk, bide zuzeneratzeko, NEGUA deritxon prañe zañaren itzaldiak, beañekoak izango dira, eta udaldirako bafiz beñola Egito'n izan zan lako *eltxoen izuñia*. Orduan gai onetzaz «Zer edo Zer» au lakorik idatzi beañik ez genduke euki-ko...

Egiak argi, eta min artzen dabenak, begietako gatxa osatu dayela....

GAMA.

Bilbo'n Jaunaren besoetan, Kistarki, bizi zan lez il da gure bazkide Urigoitia'tar Kepa zana, Manterola'tar Gabirel eta Domeka'ren osabia ta Urigoitia'tar Imanol'en anaya, irurok geure bazkidiak.

Euroi atsekakian ben-benetan laguntzen dautsegu ta ildakoaren aldez otoi bana irakurlioi eskatzen dautzuegu.

G. B.

*Txoriak amaren agoz
entzun daun abestia,
maitasunez abestea
beretzat poz gustia.*

*Beste batzuk politago
abestuten ba'dabe,
ez dau arein ondamurik,
bera geyen maite.*

*Toki batetik bestera
aldatuten danean,
bere abesti gozoa
daroa biotzean.*

*Eta ez bildurik izan,
ez yako ez aztuko;
amagandik ikasia
onena berentzako.*

*Espetxeratu aŕen be,
iñoz kayolen baten,
itun aldi ta pozetan
bera dau abesten.*

*Ta gizon ankeŕak nozbait
izkiluz il ba'dagi,
azken abes laría be
beren izketan dagi.*

*Txoritxo begiko ofen
ikaskizun edeŕa!;
Amaren altso gozoan
ikasirik euskera,
zer dala ez darabilgu
txoriaren antzera?..*

Nikola ta Godopredo gastetxoak, bidez
yoyazala, kordel zaŕ bat idoro eben

Berealaxe, batak berea zala, besteak
be bai, eztabaida gogorean asi ziran, eur-
en gafasiak inguruko zelai ta mendietan
be entzuten ziralarik.

Godopredo'k alde batetik kordela ora-
tuta eukon eta Nikola'k bestetik; ta biak
indaŕka alkafi kentzeko.

Olantxe alditxo a igaro eben, eta azke-
nean, kordela apurtuta, biak lokatz artera
yausi ziran.

Une atan bertatik igaro zan gizon batek
esan eutsen: Eztabaida zaleai orixe ger-
tatzen yakok, uskeri utsagaitik gaŕasi ta
eztabaida saratatzuetan asten dozak, ta zer
irabasten yabek? Ezer bez; saŕitan, zuok lo-
katzez lez, lotsariz beterik geratzea baño.

Bakez bizi gaitzean
eztabaida barik;
eztabaidak ez dakaf
iñoz be gauz onik.

M. taf G.

(1) Schmid.

ZER EDO ZER

GIZARTEA TA KRISTIÑAU-IKASTIAZAZ

Egi ezañunak.

Egizko yakituria, gauzak *diran lez*, *oso-osoan* ikustea da. Gauzak erdizka ta alde batetik bakarrik ikusten ditugunean, gauzak diran lez ez dituguz ikusten, ta gure eretxiak, zuzen antzekoak izan arren, guzura erez eroan geinkezanak izaten dira. Eta gizonaren adimena oso laburra dalako, saritan auxe gertatzen yako.

Gauza bakoitzean dagona bakarrik ikusi; ez geyago ta ez gitxiago. ¡Ortxe dago loña....!

Batsuk gogo ilunekoak izaten dira-ta, dana baltz begitanduten yake, beste batsuk ostera dana zuri ikusten dabe-ta, eragospenik ez dabe ikusten. Bide zuzena bariz bien bitartean dago.

Gauzak ba, naiz gaba ilunak estaldu naiz eguzkiak argitu, *direan lez dira*, ez guri sarri askotan begitanduten yakuzan lez.

Auxe dala-ta, gauza batetzaz geure eretxia agertzen dogunean, geure barua zelakoa dan igarri barik azaltzen dogu. Gogo txaridunarentzat gauza gustiak txarak dira, gogo ona daukanak bariz

txar artean zerbait on aurkituko dau, on utsik eta txar utsik ludi onetan ez dagola bai-dakialako.

Au egiztuteko ara

Ipuintxo baf.

Egun baten, Samaria bidean, an sarri oi dan lez, txakur bat ilda, eguzkiak gustiz ustelduta, bide ertzean aurkitzen zan. Euli ta eltxoak inguratzen eben. Arak ugari bai ugari euren lanean ziarduen.

Ondotik igaroten ziran bideztiak, iguñez arnasarik aritu gura ez-da, albora begira, agin-arteon esaten eben: ¡A!! Iguin-garia!.. ¡Txa... orek dauko atsa!... eta ingurutik azkar igaroten ziran.

Bideztien artean, gizon gaste, gustiz begikoa, uferatu zan, izakera leun eta begirakun gozoduna, eta, txakurari artetaz begira yaririk, bere arteon ingurukoak oartzeko eran esan eban: ¡Orek dira aginien zuriak!..Au oarturik bidezti batek arituta esan eban: «Anayak; gaste ori ezin leiteke besterik izan, Galilea'ko Yosubano. Axek bakarrik, ainbeste ustelkerin erdian gauza onik ikusi leike». Gauza bat izan arren bardin ezin eben ikusi!...

Beraz gustia baltz ez da ikusi beař...

Gaste arek egin ebana egiten ez dogulako, gauzak beař diran lez ez ditugu ikusten.

Gaur egunean gizadiari alde batetik bakařik begiratu ezkeru, gizartea gexo aztunagaz dagola oarřtuko dogu. Ludia egiz txarřo dabil, bere bidetik urten eta noiz amiltegitik bera yausiko dabilen bultzi (trenu) dirudi. Gauzak goikoz bera dabilz, batez be au idazten diardugun artean. Alde gustietan, maitasun ordez gorřoia biotzen yaube egin dala ikusten dogu, lizunkeriko lokatz artean gizartea ito agiřean dago; txindi-zalekeria, gizon geyenen egaři asegatxa da. Eta onez ganera, *eguzkia nora*, dabiltzan ainbeste *gizontxo* ikusirik, Joffroy idazleagaz, «orain gizonik ez dala» ta abarř, gustiok dantzuguna, eta *gogo txarřagaz* gagozanean gustiok diřnoguna da...

Eta izan be,

Urře dis-disak bakařik poztu;
yan-edan gařa, nondik asetu;
giriņa lizunen nabařkeria;
biotz-gorřoto, bekaizkeria;
adimen ilun yopu biotza,

da gaur askontzat, zorun-zoruntza.

Bařio ori oinřo gaitza bakařik ez da.

Gitxi, asko, betikoa da. Guk beti uste izaten dogu igarotako aldiak obeak izan dirala, geure agiřeko miřnak gure aitaitarenak bařio min geyago emoten dauskulako.

Gařera, txarřa dan bařio baltzago ikusten dogu, begien aũrean agertzen yakun lařno baltzaren ostean iluntasunok ezereztuteko gai dan argia ikusten ez dogulako. Eta beste askotan geure alperkeria zuritzearen, bizitza betiko gudaritza dala aztuten yakulako; geure etsayei arpegi emoteko adorerik ez dau-

kogulako... Gustia baliz ikusteko esku-biderik ez daukogu ba.

Ludian ona be uřari da.

Eta uste dogun bařio ugariago, eta beste edozein alditan izan dan beste bai beintzat. Gaiztakeria berez zarata-zalea dalako, azalean eřez agertzen da. Ontasuna osteria ixil-zalea dalako, bere burua eskutatzeru egiten dau. Auxe dala-ta ludiarri azalez begiratu ezkeru, on gitxi begien aũrean agertzen yaku.

Gauzak bařiz beřtetara gertatzen dira. Gaur egunean be, *Weis* aba yakitunak idatzi eban lez, «gauza gustiak ondo aztertu ezkeru, zio ugari daukoguz Yaungoikoari eskerak emoteko, beste gizaldi baten ordez, gizaldi onetan yayo gara-lako». (*El peligro religioso*, 1^o atz. doixeratik erderatua)

Oonimenak iřnoz bařio etsai geyago dituz, bařia, laguntzaleak be bai. Onetan gizaldiak izan dira gureagaitik trukeu ezin leikezanak.

Aũ egia izan ařen,

kistařen artean gaitz bat, gustiz kalte-gařia, zabaldu da. Ziřeste epelkeria, gogo-gayetzaz aul eta adorebakoak ugari-tzea. Izenez bakařik kistař agertzen diranen taldea ugaria da. Kistařak izan, eta ez diranakandik, euren yolas, irakurte ta oituretan berezi ezin leikezanak. ¡Gaitz tamalgaria ziřez!...

Eta gaitz onen sustařa,

X Pio gurřariak, *Acerbo Nimis* deritxon idazkian esaten ebanez, «Kristiřnau-ikastiak suztařez ez yakitetik sortzen da» Ez yakin au, beste gai batsuetan ikastun diranen artean be, uste dan bařio zabalago dabil.

Ziřeste epelkeria, eta ondorengo gal-gaři gustiak, orřxe dauke euren sustařa:

«bea' dan lez, Kisto'ren irakatsiak, ez irakatsi ta ez ikastea.» Gizonak zorioneko izateko gauza asko yakin bea'rik ez dauko, baña kista' ikastia ezpa-daki zorioneko ezin izan, naiz ta, yakidi gustiak ikasi.

Egia esateko yakitea ez da naikoa, bete be egin bea' da; baña ez dakianak ezin bete. Begiak zabalik dituana galdu leiteke; baña itsua dana, utsik barik. Auxe da kista'ren arteko gauzarik lotsa-ga'riena; Kista' ikastia ez yakitea. Gustientzat bea'rekoa da, za' eta gaste; yakitun eta ez yakientzat: yakitunarentzat geyago. ¡Ez da ez, kista' askok uste daben lez, umeentzat baka'rik, gustiontzat baño!....

Eleizak gai onetzaz lege zeatzak emon ditu (Cod. can. 1329 seq.) Eta orain daukogun Doipuru gurgari XI Pio'k, oraintsu, bere oldez, batza' bat izentau dau, «lege oneik ludi gustian kemenez bete eragiteko; eta kista' andi ta txikien artean Kristiñau-Ikasbidea zabalduaz, kista' arazoetzaz katolikota' erietan, dagoan ez yakin lotsagari au bein betiko zero kentzeko»

Auxe da osagai baka'ra gizon bakoi-tzarentzat, erientzat eta gizarteantzat. Gustiok, kista' ikastia ikasi, ta betetan alegindu ezkerok, *bake santua*... Txiñelik eta espeterik be elitzake bea'ko...

Beraz kista' zintzoen arazorik lenena auxe da.

Kristiñau-Ikasbidea, *ikasi, egin, eta irakatsi*; erukizko egintzaririk opena ori-xe da-ta.

Au ondo ezagutzen eban Parantzen lengo gizaldian ospetsu izan zan.

Politiku batek.

Doupanloud, gotzain yakitunak berari egun baten esan eutsola diño: «Ni il nai-

tenean, nitzaz itzaldia egin bea' ba'dozu, esan zeinke, egunero, Kista'-Ikasbideko ori bi iraku'rien ditudala».....

Auxe kista' gustiak egingo ba'lebe.....

GAMA.

IDAZTI BARIJAK

ZURTASUN-GOGOA, UMEENTZAT OARTXO EGOKIAK» izena dau liburutxo Mujika'ta' Gregorio'k idatzi ta Oleaga'ta' Nazario'k euskeraldua artu dogu, Bilbao'ko Auzeki-Kutxa'k bialduta.

Liburuak iru zati daukaz: Lenenguan auzetutia zer dan eta auzetutetik jato'rkuzan onura edera'k ederto azalduten ditu. Biga'fenian auzetutiatzako esakun, supia edo e'efran edera'k dakaz. Iruga'fenian auzetute-gaijari dagokijozan ipuin politak, atsegingarijak eta asko be asko irakasten dabenak, ipinten ditu.

A'rtu bei gure zorion-agu' beroena bere egiliak eta baita bere euskeratza'liak be, ederto be ederto dago ba euskerara biurtuta.

Bilbao'ko Auzeki-Kutxa Udaldara'k ijeki batzuk eskeni dauskuz zabalkunderako, ta, gura dabenak, eskatu leiskegue ona geuri, nai bertara, Auzeki-Kutxara.

* * *

«JERUSALEN'GO OSTERAN IDAZKIJAK AMARI» izenagaz Izurategi abadiak liburu polit bat egin dau. Liburu au zati bitan bananduten da. Lenengo semiak amari osteran bialduriko idazkijak dakaz, igaroten dan erija; lekua, elexa ta beste etxe batzuk, jentia, ekanduak azalduten dituzala. Uri askoen azalbenak dakaz, Constantinopla, Chipre, Egipto ta abar baña geyena Lu' santuaz jarduten dau.

Biga'fen zatijan idazki-ereduak dakaz. ¡Ta ze ederto dakijan Izurategi Jaunak idazkijak egiten! Idazki-modu gustijak ja'ften dauz; aita'k semiari, semiak aitari, lagunak lagunari ta abar, ta abar

A'rtu bei gure bazkide dan Izurategi jaunak zorijon-agu' beroa bere liburu ede'atseginga'rijagaitik.

Salgei dago sei erialian.

BIZITZAKO BIDEAN

*Ibili nabil neure bidean
bizitza-bide latzean,
ta gustiz urí, urí dakustaz
gizonak gizon artean.*

*Egia maite beaŕean ba,
guzurá maitatzen dabe,
Yaungoiko zale izan beaŕ da
uskeria dabe maite.*

*¿Zertarako da,
adin argia?
¿Zetarako da biotza?
Bizitzan Yauna
maitetu ezik.....
Askoz oba eriotza!.....*

GABIREL.